

Lemoako Kirol Astea hilaren 16tik 22ra

Kirolaren praktika asko mugatu dau COVID-19aren hedapena geratzeko azken dekretuak eta Lemoako Kirol Astearen programazioan be eragina izan dau. Ha-ta guzti be, kirola osasungarria da eta herritarrak kirola egiten animetea da Lemoako Kirol Astearen helburua. Aurten, proiektzioak, Unai Ormaetxearen *Liburu bat motxilan* liburuaren aurkezpenak eta argazki lehiaketa batek osotuko dabe Lemoako Kirol Astearen programazioa. **15. orrialdea**



**Ez dok ero,
Birritan
bortxatua eta
Azken balea
antzezlanak IKEn**
16. orrialdea

Sailburuodea, aurrez aurreko hezkuntzaren alde

Pedrosa: "nire egitekoa hezkuntza komunitatearen zerbitzura egotea da".

Hezkuntza espazio segurua dala dino eta irakasleak lan ikaragarri ona egiten dabizala segurtasuna bermatuz irakaskuntza proiektuak aurrera erroten. Hezkuntza komunitate osoa inpliketan danean, sano proiektu politak ateraten dira eta Arratia eta Zeberioko HH eta LHko eskolak puntakoak dira horretan. Sailburuordearen eginkizuna hezkuntza komunitatea eta Hezkuntza Saileko bere taldeagaz batera, hezkuntza estrategiak diseinatzea da, arrakala soziala txikitu eta danontzako kalidadeko hezkuntza bermatzeko. **10. eta 11. orrialdeak**



Indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzu publikoak

Hori izango da zehazkiaren 25a, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatze Nazinoarteko Egunaren harira, Arratiako mobimentu feministek egingo dauan aldarrikapena. Izan be, pandemiaren instituzioen kudeaketeak andren bizi baldintzak okertu ditu nabarmen eta mota guztietako indarkeria matxistak handitu. Horri aurre egiteko zerbitzu publikoak ezinbestekotzat jotzen ditue Arratiako andra taldeak eta talde feministak.

Indarkeria horren kontrako konzientziazioa bultzatzeko be hainbat jarduerak kultural antolatu ditue hilean zehar. Egoerak berak eta hartutako neurriak, aurreko urteetan baino kartel apalxoagoa antolatu behar izana ekarri dabe, baina, ha-ta guzti be, ez dira faltauko antzerkia, tailerrak eta egiturazko indarkeria honeri erantzun kolektiboa emon ahal izateko topaketak. Hilaren 24an, Igorreko Kultur Etxean *Birritan bortxatua* antzerki dokumentala ikusteko aukerea egongo da, Diman autodefensa feminista tailerra egongo da 14 eta 18 urte arteko neskenentzat eta Lemoan hilaren 26an batuko dira erantzun kolektiboaren kako bila. **5. orrialdea**

UBIDE

Memoria historikoa berreskuratzeko ikerlana egingo dau Ubidek

Ubide Memorian izenpean, Ubideko Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarteak herrian 1936ko gerra eta gerra ostean gainera ikerketa lana abiatu dabe. Helburua, Ubideko memoria historikoa berreskuratzea da. Horretarako, herritarrak sasoi hoerretako argazkiak, dokumentuak eta abar Ubideko Udalak prestatu dauan Memoriaren Bulegora eramateko eskatzen jakie.

Proiektuaren aurkezpena zehazkiaren 13an egin zan herriko frontoian, eta bertan egon ziran Iñaki Beobide alkatea, Zigor Iturrion, eta Ione Zuloaga Aranzadi Zientzia Elkartekoa. **6. orrialdea**

Kelvion-GEA greba mugabakoan

Kelvion Thermal Solutions Alemaniako multinazionalak, kaleratze kolektiboa egiteko asmoa aurkeztu eban, eta Igorreko lantegiko beharginen asanbladeak enpleguari eusteko burruka egitea ebatzi eban. Hori dala-eta, greba mugabakoa erregistratu eben zehazkiaren 15etik aurrera. Igorreko San Juan auzoan dagoan lantegian 73 beharginek egiten dabe behar. **5. orrialdea**



IGORRE

ARRATIA

Euskaraldia hilaren 20an hasiko da

Zehazkiaren 20tik abenduaren 4ra arte, bigarren Euskaraldia, euskeraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko ariketa soziala egingo da Euskal Herri osoan. Arratian be, euskerearen erabilera eragina izan dagian herritarrak parte hartzean animetako hainbat kultura ekitaldi antolatu ditue. Hasikera egunean berbarako, Areatzan, Diman, Igorren eta Lemoan, egongo dira kontzertu edo ikuskizunak. **17 orrialdea**

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ERETXIA

Minoriak protagonista Estatu Batuetako hauteskundeetan

Estatu Batuek asko ez dira modernotzat hartzen; etorkinak eregitako herrialde bat da bai, baina belaunaldi bitan, arbasoak egindako lana eta burrukea guztiz ahaztu jakiez. Trumpen presidentetzan, populazio minoritarioak sufridu ditue eskubide urraketa gogorrenak: biztanle baltzak poliziaren indarkeriaren eskuetan hiltzen dira egunero-egunero eta gobernuak ez dau ezelango erreforma sistematikorik ezarri; dokumentu bako atzerritar latinoak mantentzen ditue komertzioak eta uzta bilketak martxan eta, beraz, pandemiak gogor jo dau kolektiboa, baina ez dabe gobernuaren ezelango laguntzarik jaso; Mexiko-AEBko mugako detentzio zentroetan, andra atzerritarri histerektomia behartuak egin deusez eta, gurasoak umeengandik banatu dituzte, oin ezin dabez 400 umeren gurasoak topau. Oin, herrialdea guztiz zatituta dago eta ez dago atzera bueltarik. Trumpen Amerika barri bat eregi dau, baina ez dau amerikar guztientzat eregi. Pandemiak honetan, gitxi batzuek pilatu dabe aberastasun guztia beste batzuek miseria gorrian bizi diran bitartean. Amazonek, adibidez, 1,5 triloje dolar inguru balio ditu momentu honetan, baina, ez dau zergarik ordaintzen. Ostera, Georgiak zerbitzari batek 5 dolar irabazten ditu orduko eta zergak ordaintzen ditu. Amerikar askoren haserrea espero genduan hauteskunde honeetan, batez

be, pandemiak askoren egoera jasanezina egin daualako, baina askoren sorpresarako, ez dogu hori ikusi.

Zer irakatsi deuskue hauteskundeak? Trumpen ekimen errazitak, lege apurketak eta pandemia kontroletako ardurabakotasunak biztanleria erdiaren babesa daukiela. 230.000 estadubatuaren bano gehiago hil dira pandemia honetan eta oindino Trumpen COVID-19a gripe xume bat dala uste dau. 180 graduko aldaketa radikal bat espero genduan lege-gintzan miloeka personak kaleak hartu ostean. Ez da hala izan eta uste dot errazoi bi azpimarratu daikeguzala: desinformazio eta pribilegio itsua. Alde batetik, informazio faltsua apropos zabaltzen dabe, sarri isilpean, eretxi publikoak gitxi batzuen gustura moldatzeko. Ez sinistu inoz inkestetan! Beste alde batetik, badagoz sano ondo informata dagozan biztanleak, baina euren beharrianak asebeteta dagoz eta beste batzuen eskubideak bermatzeak eurenak galtzea esan gura dauala uste dabe. Erreforma legalak mobimentu sozial indartsua eskatzen dau eta askorentzat ez da garrantzitsua ez diralako erreforma honetaz baliatuko. Errealidadea tristea da Estatu Batuetan. Daukienen eta ez daukienen arteko zatiketea ia bateraezina da eta, egunen baten egoera hau aldaturiko balitz, nik behintzat badakit ez dodala ezetuko.

Aurtengo hauteskundeetan,



EIDER ETXEBARRIA ZULUAGA

University of Illinoisko irakaslea

estadubatuarrak 74 eta 77 urteko gizon zuri konserbadore aberats biren arteko ebatzia hartu behar izan dabe. Ez Trumpen ez Bidenen ez ditue herriaren beharrianak inoz ulertuko bakotxa bere burbuila narzista pribilegiaduan bizi dalako. Ez Estatu Batuetako kongresuak, ezta senaduak be, ezin ditue ekimen progresista, inklusibo eta justuak proposatu herritik guztiz deskonektatuta dagozalako. Hauteskunde honeetan demografia apurka-apurka aldatzen dabilela ikusi ahal izan dogu: gizon-andra baltz, indigena, homosexual eta transgeneroak hautatu dira senadore. Senadu anitz bat osotutako nahia sentidu daiteke, baina, botoak hor dagoz eta urriak dira. Hauteskunde honeetan ikusi dogu aldaketa soziala bultzatzen dabilzan kolektiboak, batez be, biztanleria baltza, andrak eta indigena amerikarrak izan dirala. Boto latinoarengan esperantza handiak egozan ipinita, baina boto latino oso zatituta dago: Mexiko eta zentroamerikatik datozen etorkinak Bidenengan sinisten dabe, baina Cuba eta Venezuelatik datozenak, ostera, Trumperi emoten deusie botoa. Gainera, landa eremuetan bizi diran familia zuri erlijiosoak daukien poderea eskualdatzeak belaunaldi askotako lana eskatuko dau.

Presidentzia irabazteko hautagaiak 270 boto elektoral irabazi behar ditu eta boto elektoralak irabazteko estadiak irabazi behar dira. Boto elektoralak biztanleriaren arabera banatzen dira, hau da, biztanleria handiagoa daukien estadiak boto elektoral gehiago balio ditue. Adibidez, Kaliforniak 55 boto elektoral balio ditu 40 miloe persona bizi diralako ber-

tan, baina Mississippik 6 boto elektoral balio ditu 3 miloe personako biztanleria daukalako. Sistema binario kategorikoa daukie. Beraz, boto erdiak baino gehiago eskuratzen dituan hautagaiak estadi horren boto elektoral guztiak irabazten ditu. Horregaitik hauteskunde estadubatuarran estadiak gorri (errepublikar) edo urdinez (liberal) marketan ditue hautagaiak estadiak irabazten dituzte. Hauteskunde honeetako giltza *swing states* diralakoak izan dabe. Wisconsin, Michigan edo Pennsylvania, adibidez, *swing state*-ak dira hauteskunde batzuetan gorri bihurtzen diralako eta beste batzuetan urdin, partidu bien botoak oso parekatuta dagozalako beti.

Eguazten gauean, Joe Bidenek 264 boto elektoral eskuratu ebazan Wisconsin eta Michigan irabazi ostean. Pentsau 2016ean Trumpen irabazi ebazala Wisconsin eta Michigan, beraz, Bidenek hauteskundeak buelta emoteko giltzea lortu ebala emoten eban. Presidentetzarako hautagaiak *swing states* honeetan miloek eta miloek inbertiduten ditue kanpaina gogorragoak egiteko. Eguazten gauean, bada, Estatu Batuetako begi guztiak Nevada jarrita egozan. Nevada 6 boto elektoral balio ditu, justu Bidenek behar ebazanak presidente bihurtzeko. Nevada lango estadi txiki batek ez dau inoz halako atzintza publikorik jaso. Herrialde osoa esperoan egoan eta tensio jasanezina zan. Urdu-risun nazionala ezkina guztietan somatzen zan. Sare sozialetan babes protokoloak zabaltzen hasi ziran gerra zibil bat hasiko balitz ondo prestatuta egoteko. Begi guztiak hauteskunde honeetan jarrita egozan, mundu osoak. Ez harritu, Estatu Batuek badakie munduaren zilborra dirala. Zapatuan, begiak Georgia eta Pennsylvaniagan jarrita egozan. Atzen momentuan, postaz jasotako botoak esker, Bidenek abantaila lortu eban. Ia 7 miloe personak emon eban botoa Pennsylvanian eta, azken momentuan, postaz jasotako 30.000 botogaitik Bidenek Pennsylvaniari buelta emotea lortu eban eta hauteskundeak irabazi ebazan.

Estatu Batuetako hauteskundeetan, atzen berbea estadiak dauka, ez presidentek. Estadiak lege elektoral desbardinak ditue biztanleen botoak jasoteko. Hasi baten, sistema elektoral estadubatuarra estadi autonomi eta independentzia emoteko sortu zan. Estadi Batuen filosofia politikoa beti izan da poderea deszentralizetea gobernu zentralak eskua gura dauan moduan sartu ez dagian. Estadiak ia-ia herrialde desbardinak izango balira funtzionetan dabe hemen. Honek, presidentearen indarra eta esku-hartzea mugatzen dau. Ha-ta guzti be, oindino emaitzak etxoten gagozan bitartean, Trum-

pek Wisconsin eta Michigan auzitara eroan gura ebazala baiezatu eban botoen berkontaketa bat egiteko. Hemen sorpresarik ez. Postaz bidali ziran gehiengo botoak, boto urdinak izan ziran. Boto honek beranduago zenbatu ziran egun batzuk behar izan zituelako euren estadietara ailegetako. Bidenen atzen momentuko abantaila sinisten eban liberal guztiak. Trumpen ustetan, postaz bidalitako botoak "boto ilegalak" dira, baina, atzen berbea estadiak daukienez, presidentearen amorrualdiak ezin dau biztanleen ahotsa isilarazo.

Hauteskunde estadubatuarrak ulertzeko kongresuak zelan funtzionetan dauan ulertu behar da. Kongresua da Estadi Batuetako autoridade eta lege egilea. Kongresuak errama bi ditu: Ordezkaritza Etxea (*House of Representatives*) eta Senadua (*Senate*), baina senaduak pribilegio eta podere gehiago daukaz. Presidenteak oposizio barik legegintza egiteko errama biak kontrolatu behar ditu. Hauteskunde honeetan, 2016an lege, momentuz Ordezkaritza Etxea liberalak lortu dabe, baina Senadua errepublikarrak. Senaduak buelta emon leike oindino, baina urtaila arte itxaron beharko dogu jakiteko. Bidenek Senadua lortzean ez badau, datorren lau urteetan egin leiken lana mugatua da, zelantza senaduen menpe dagoalako.

Nik neuk ez dot uste irabazle argirik egin danik hauteskunde honeetan. Herrialdea eta familiar guztiz zatituta dagoz. Biztanleria ia erdiak uste dau Estadi Batuetan ez dala errazismo sistematikorik existiduten eta pandemia guzur sozialista handi bat dala. Trumpengan sinisten ez daben kolektibo handi batzuek bere alde egin dabe abortua eta imigrazioa guztiz kriminalizatu gura ditualako. Andra etorkin lez, mingarria da gorrotoz elikatzen dan herrialde baten bizitea. Minoriak berbizi dabe esperantzea herrialdean. Boto baltza izan da hauteskundeetako protagonista nagusia eta *swing states* diralakoak demokrata liberal bihurtu diran errozioa. Ha-ta guzti be, hauteskundeak benetako inpatua izan dagien, kongresuan aniztasuna behar dogu. Minorien errepresentaziorik ez badago ezingo doguz segurantza soziala edo soldata minimo justua lortu; ezingo dogu erreforma polizial bat onetsi; ezingo dogu andren eskubide erreproduktiboak babestu; ezingo dogu deportazio masiboak gelditu. *La tierra de las oportunidades* deitzean deusez Estadi Batuek, baina nortzuek? Benetako aukerak dituenak. Minoriak aukerak behar ditue. Estadi Batuetan aukerak egin badagoz, baina minoriak aukera horreek lortzeako askoz gogorrago lan egin behar daben bitartean, aukerak ez dira aukerak, trabak baino.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Durundu



Erleak eta antzeko insektuak hegaz egitean ateraten daben burunba luzeari edo kanpaiak jotzen diranean (kanpantorrean zein eleiz-hormako erlojuan) egiten daben kanpai-hotsari durundu esaten jakie (durundúe, ahoskatuta). Fenomeno atmosferiko durundutsuak be badira, esaterako, haizeak edo hodeiak gogor jotzen dabenean. Ibilgailu motordunak be, arin doazenean, durundua ateraten dabela esaten dogu. Amaituteko, jaietako persona askoren kexua jarriko dogu adibide modura: "Hemen kristoren durundua dago gau guztian, badakizu zer dan hori?".

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

COVID-19 = TOUCHABLE

Ez dakit gogoan dozuen *Los intocables de Elliot Ness* filma. Elliot Nesserri ipini eutsiezan lankideak (poliziak) ziran *Los intocables*, UNTOUCHABLE. Halako baten, taldekide bat igogailuan harrapau eben mafiakoak, bertan hil, eta haren odolagaz TOUCHABLE (*Tocables*) idatzi eben igogailuaren ispiluan. Horixe bera pentsau neban nik SARS-COV2 etorri jakunean, eta inguruan zabaldu zan hipokondria ikustean.

¡Hay gente muriendo! entzuten zan balkoietatik, eta bat-batean danok bihurtu ginan jente on, danok eskuzabal, bihotz onekoak; danok kantari eta txalo jole balkoietan. Egia esan harritu egin nintzan gure eskuzabaltasunaz eta ontasunaz, eta horrek zer pentsau emon eustan. Ez gara horren eskuzabalak egunero, minuturo, milaka ume gosez hiltzen dalako munduan; ez gara horren eskuzabalak milaka lagun Mediterraneoko uretan itoten dira-

nean, ia egunero; ez gara horren eskuzabalak milaka andrazko hiltzen diranean munduan, harrapatzen dabezan infekzioakaitik euren higijene intimorako balde bete ur garbi ez daukielako.

Baina, bat-batean, birus bat etorri da, eta geu be harrapau egiten gaitu, eta gutako batzuk be hil egiten dira, eta hil egingo dira, edo hil egingo gara. Ez ditu afrikarrak edo hegoamerikarrak bakarrik harrapatzen, geu be, mendebaldeko kulturearen sema-alabak, Homo Sapiensen artean Sapiensenak harrapau egiten gaitu! Hau ikara! Jainkoarren! *Tocables*, TOUCHABLE gara.

Inguruan daukaguna pelikula bat ikusten dan moduan nabil ikusten aspaldian. Danok ikaratuta birusak harrapau ahal gaitualako, eta hil be egin ahal gaitualako. Bai, halantxe da! Halantxe izan da eboluzinoan beti! Gaixotasunak etorri izan dira beti! Batzuk bidean gelditu dira, eta indartsuenak egokitu eta aurrera egin dabe, beti! Ai, baina gure mendebaldeko kulturearen harrokeriak ezin dau holangorik ulertu! Gu! Zelan gu, baina; Sapiensen artean Sapiensenak! Badagoz-eta Afrikan eta herrialde txiroetan hainbat eta hainbat gizaki hiltzeko!

Ba... zoritxarrez, patuak lezino polita ekarten deusku nozik behinean, apaltasun lezinoa. Eta TOUCHABLE gara. Halanda guzti be, egon trankil, afrikarrak, hegoamerikarrak eta munduko pobreak oingoan be gu baino gehiago hilko dira-eta, gu baino askozaz be gehiago!

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Hitzak eta hotsak 1

Hitzlandia: Berben lurralde askea.
Hitz & hitzak: Bakanak eta anitzak diren eleak.
Hitz eta bits: Garagardoa edanez, lagunekin egin ohi den solasaldia.
Hitz okey: Baikorra den berba.
Esker & hitz: Eskerrik asko!
Hitztripu: akats ortografikoa.
Ehiztari: berben ehiztaria, poeta.

Hitzak eta hotsak 2

Hitz hatxak
Hitz ertzak
Hitz hitsak
Hitz hotzak
Hitz hutsak
Utz itzak!!!

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Datorren urteko egutegiak egiteko sasoia da eta argazki lehiaketak agertzen dira, perretxikoak lez, egutegiok argazki ederrez horniduteko. Gurean, egutegietarako aproposak diran paisaje ugari dago eta, egunotan, pasialdian, 2020eko momentu bat gelditu eta, hamabi onenen artean badago, 2021ean hile osoan ikusiko ahal izango da. Ez dago jakiterik zein hiletan.

Argazkian, bakea, poza, askatasuna eta holangoak harrapatzea kome-nidu da. Aurtengo urte latz eta garratz honetan, hori segundo bateko salbuespeneko sentimentua izan lei, baina harrapatu ezkerro, datorren urtean hile osoan gozatu ahal izango dogu. Memoria gara. Eta irudi bat ikustean berbiztu egiten dira momentu haretako sentimentuak.

(Ha-ta guzti be, poza eta askatasuna, oroitzapen hutsetan geratu ez daitezala espero daigun).



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa ortodontzia
hagin klinika
Marina Uriagaitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexaola, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 808 664 018

Troka
Lagunak gurekin
onak!
Lagunak gurekin
onak!
Lagunak gurekin
onak!

IGORRE

Kelvion enpresako beharginak greban

Kelvion Thermal Solutions Alemaniako multinazionalak, zehazkiaren 5ean jakinarazo eutsan Igorreko lantegiko langile batzordeari, kaleratze kolektibo bat aurkezteko asmoa. Hurrengo egunean, beharginen asanbladeak enpleguari eustearen alde burrukan egitea ebatzi eban eta greba mugabakoari ekin deustie. Igorreko lantegian 73 beharginek egiten dabe behar.

Erredakzioa

Enpresa batzordeak, LABeko 3 ordezkari eta ELAko 2, lanpostuak defendiduteko burruka egingo dauala emon dau jakite-

ra eta greban hasi dira "Kelvion Thermal Solutions-eko zuzendaritzeari EEEda bertan behera itxi, eta eztabaidari ekin deiola exijiduteko, enplegua eta lan baldintzak" mantenduteko. Hu-

rrengo egunetan mobilizazioen barri emongo dauala adierazo dau enpresa batzordeak.

Eusko Jaurritzako Industria Sailari, itxiera eta kaleratzeak galarazoteko "ahal dauan guztia egin dagiala" exijiduten deustie, kaleratze kolektibo hau desindustrializazio prozesu baten adierazgarri dalakoan.

Kelvion-ek, GEA izena euki eban 2015. urtera arte. Bero trukagailuak egiten ditu berotze eta hozte sistemetarako.

Arratiatik kanpoko kaleratzeak

Kelvion Thermal Solutions-ek beste lantegi bi daukaz Estaduan; bata Kantabrian eta beste bat Madrilan eta kaleratze kolektiboaren ebatziak 3 lantegiai eragiten deustie. Guztira 147 behargineri.



Kelvion enpresea, 2015era arte GEA izandakoa.

ARRATIA

Osasun zentroyen aurrean kalidatezko osasungintzearen aldeko elkarretaratzeak egin ziran

Erredakzioa

Zehazkiaren 4an eta 11n, osasun zentroyen aurrean konzentrazioak egin ziran kalidatezko osasungintzearen alde. Igorren, Diman, Lemoan eta Zeanurin ehun lagunetik gora batu ziran. Bertaratu-takoak, lehen arretarako baliabide gehiago, inbersino gehiago osasungintzan, gitxienez BPGren %7, eta murrizketa eta pribatizaziorik ez egitea eskatu eban. Hurrengo egunean, Bizkaiko Osakidetzako beharginak greba egin eban.

Grebara deitu eban Osakidetzako sindikatuak, grebak "babes zabala" jaso ebal, batez be "lehen

mailako arretan" adierazo eban. Jaurritzaren arabera, %8,6ko se-gimentua izan eban.

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, ESK, SAE eta UTESE sindikatuak deitu eban grebara. Izan be, egoerea gero eta "kezkarriagoa" da eta "egunez egun larriagotzen" doa. ELAko ordezkariaren arabera "lana izugarri areagotu da, kolapso egoeran gagoz, daborduko ezinezkoa da danera ailegetea eta, kasu askotan, COVIDa ez dan guztiari erantzutea". Lan kargea arintzeko langile gehiago eskatu ebezan, euren esanetan "Osakidetza langileak estutzen dabil pandemiari aurre egiten".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Indarkeria matxistaren kontra zerbitzu publikoak indartzeko eskatuko dau mobimentu feministeak Arratian

"Indarkeria matxistaren aurrean zerbitzu publikoak indartu" lelopean, elkarretaratzeak egingo ditue zehazkiaren 25ean, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazinoarteko Egunean, 19:00etan.

Erredakzioa

Arantzazun, Areatzan, Bedian, Diman eta Zeanurin herriko plazetan egingo dira konzentrazioak, Igorren Kultur Etxe parean eta Lemoan plaza gorrian. Bailarako andra taldeak eta talde feministak aurten be kartel bateratua atera dabe, mobikortasuna murrizten daben neurriak, herri batzuetakoak beste herri batzuetara joan ahal izatea galarazo arren, aldarrikapen bera egingo dabe herrietako konzentrazio guztietan. Mota desbardinetako indarkeria matxistak ezabatzeko, mo-

bimentu feministeak funtsezkoak jotzen ditu zerbitzu publikoak.

Jarduerak

Indarkeria matxistaren egiturazko izakerearen gainean hausnartzeko, hainbat jarduera antolatu ditue herrietan. Artean, zehazkiaren 11n, Faktoria Lilaren *El nunca me pegó* dokumentala proiektatu eban. Ostean, Faktoria Lilako Irantz Varelak indarkeria psikologikoa antzemateko hainbat pista emon ebezan eta laguntzeko modua laguna izatea dala esan eban, bere ondoan egotea, epaitu eta presionau barik.

Hilaren 24an, Igorren *Birritan bortxatua* epaitegietan benetan izandako galderak jasoten dituan dokumental itxurako antzezlana egongo da 19:30ean; sistema judizialaren andren kontrako indarkeria begibistan ipinten dauana.

Lemoan 26an batuko dira herriko feministak indarkeria matxistea aztertzeko eta erantzun kolektiboa eregiteko kakoen bila. 18:30ean izango da Kulturgunean.

Diman, *Panpina* izeneko antzezlana ikusteko aukerea egongo da hurrengo egunean 18:30ean eskolako kamaran. Umorea era-

biliz, antzezlana besteen begiradearen gaineko hausnarketea bultzatuko dau.

Ez da izango indarkeria matxistea ezabatzeko egunaren harira Diman egingo daben ekintza bakarra. Izan be, hilean zehar hainbat jarduera antolatu ditu Andraizeak. Holan, hilaren 22rako 11:00etan, zapata moreen tailerra antolatu dabe frontoi txikian. Ekintzarako etxean daukiezan oinetako zaharrak eroan eta morez pintauko dabez. Tailerraren ostean, andran parkeko zugatzak atonduko dabez. Gero, 25ean, parkean eta errotondan ipiniko dabez 18:30ean. Neska gazteentzako autodefensa feminista tailerra 21ean izango da.

Zeanurin be, hainbat andraren artean egindako txatalakaz ikur feministea osotuko dabe eta elkarretaratzean erabili ostean, herrian ipiniko dabe.

Zeberion, 18:00etan, Udalak antolatutako #Indarkeria Matxistaren Aurka lehiaketako sari banaketea egingo dabe plazako frontoian.

Indarkeria matxistea

Pandemiak eta erakundeak hartutako neurriak, andren bizitzan



indarkeria matxistek daukan eragina handitu egin dabe. Konfinamantuan, tratu txarrak sufriduten dabezan andra eta umeak erasotzaileagaz egon dira urten be ezin barik; etxeko langile asko euren lanpostuetan konfinauta egon dira edo lanpostua galdu egin dabe; errazismoa hazi egin da; telelanak eta zaintzak okertu dabez andra askoren bizi baldintzak eta pobrezia hazi eta larriagotu egin da andren artean, indarkeria matxistaren egiturazko izakerea eta zerbitzu publikoen premiea begibistan itxiz.

UBIDE

Aranzadik eta Udalak herriko memoria historikoa ikertzeko lana abiatu dabe

Ubideko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkarteagaz alkarlanean, zemendian hasi eta 2021ean zehar garatuko dan ikerketa lana aurkeztu eben hilaren 13an herriko frontoian egindako prensurreko baten.



Erredakzioa

Bertan, Iñaki Beobide Ubideko alkateak, Ione Zuloaga Aranzadi Zientzia Elkarteo historialariak eta Zigor Iturriotz herritar eta zinegotziak hartu eben berbea proiektuaren barri emoteko.

Ubide Memorian proiektuaren helburua, Ubideko memoria historikoa berreskuratzea da. Gerra Zibileko eta gerra osteko datuak bilduz, izen abizenak ipini gura deusez gerrearen izugarrikeriak eta Francoren diktadorea sufridu ebezan biktimai. Behin datu bilketea eginda, datuok webgune eta liburu baten argitaratuko ditue.

Ubideztarren parte hartzea

Ikerlan hau egin ahal izateko, herritarren partaidetza

ezinbestekoa dala adierazo eutsan Ione Zuloaga Aranzadikoak BEGITURI. "Garrantzitsua da lan hau gaur egungo ubideztarrok egitea, proiektua heritik eta herriarentzat izatea. Ubide Memorian taldearen atea zabalik dozue, beraz. Edozer izan leiteke balioduna: argazki bat, dokumentu bat, istorio bat, gutun bat, liburu bat, objektu bat, izen bat... edozer" adierazo eban alkateak prensurrekoan. Argazkiak, familiako oroitzapenak edo herritarrek etxean gordetzen dituen dokumentuak funtsezkoak dira gertatutakoa ezetuteko.

Herritarren ekarpenak jasoteko, Ubideko Udalak Memoriaren Bulegoa prestatu dau udaletxean, 08:00etatik 15:00etara ekarpenak egiteko. Baita posta elektronikoz, ubidememorian@gmail.com helbidera idatzita eta 945 45 03 22 telefonoz be, hartu leikie herritarrek parte proiektuan.


ARRATIA

EHUko Lascaray ikergunea Euskal Artzain Txakurren gaineko ikerketea dabil egiten

Erredakzioa

Euskal Artzain Txakurren Adis-kideak (EATA) alkartearen ekimenez, EHUko Lascaray ikergunea euskal artzain txakurren gaineko ikerketea egiten dabil. Ikerketarako, EATAk bialtzen deusez laginak ikerlariari, ikerketa eta analisi guztiak egiteko. Ikerketearen helburua, txakur erraza honen egoera genetikoak jakitea da.

Alkarlanerako hitzarmena 2018an sinatu eben EATAk eta EHUk. Ikerketeak hiru fase ditu eta lehenengoan, lagin bilketa fasean, dago ekimena. Euskal Artzain Txakur baten jaube izan eta ikerketan parte hartu gura izan ezker, izena emon behar da eta alkartekoak ipiniko dira kontaktuan jaubeakaz, lagina noz eta zelan emon adostuteko. Alkartekoak



hurreratuko dira txakurrak dagozan lekuetara lagina hartzeako.

Arratiari jagokonean, "asmoa da leku pare bat ipintea, parte hartu gura dauan jentekak izena emoteko. Auzoetan kartelak ipiniko doguz, izena zelan emon

azalduz" azaldu deutso BEGITURI Jone Achotegui EATAko kideak.

Parte hartzean dabean txakurren jaubeai, txakurren perfil genetikoaren informazio guztia izango dauan txarteltxo bat emongo jakie. Txartel honek QR kode bat izango dau eta hor sartuta ikusi ahal izango da txakurren informazio genetiko guztia.

Datuen azterketea

Bigarren fasean, batutako datu guztiak kurutzatuko dabean eta hor hasiko da ikerketea. Ikerketeak balio izango dau txakur erraza honek izan leikezan gaixotasunak bilatzeko eta txakurren arteko ahaidetasuna zenbatekoa dan jakiteko. Behin hori jakinda, ere txakurra, txakur osasuntsuen eta ahaidetasun maila txikiena daukianak kurutzatzeko ze aukera daukan jakingo dau jaubeak.

Atzen fasean, errazaren inguruko beste ikerketa batzuk egingo ditue. Honetan, errazak genetikoki izan leikiezan ezaugarri bereizgarriak identifikauko dabean.

Andren kontrako sexu indarkeriaren gaineko diskurso sozialak eragina dauka euren jokabidean eta askatasuna mugatzen dau

Izaskun Atutxa

Zelan irudikatzen da andren kontrako sexu indarkeria? da uda honetan EHUk emon dan ikastaro baten izena. Bertan adierazo danez, hedabideetan, publizitate kanpainetan fikzinozko telesailetan eta abarretan egiten dan egungo narratibeak eragina dauka andren bizimoduan eta euren askatasuna mugatu leike. Beharrezkoa da diskurso horren esangurea aldatzea, errealidadeagaz bat datorren diskursoa sortzeako eta holan, andren kontrako indarkeria ezabatzeko helburua lortzeako.

Indarkeria espazio publikoan eta ezezagunak eraginda gertatzen dala daukagu imaginarioan, eta ohikoak dira gauaren arriskuak eta ezezagunak diran personak ezagutzearen gaineko mezuak. Egoera horrek gauari bildurra handitzen dau eta andren askatasunean eragina euki leike. Beharrezkoa da diskurso horren aurrean begirada kritikoa izatea, datuak erakusten dabelako indarkeria gehiena eremu pribaduan eta persona ezagunak eragiten dabela.

Publizitate kanpainai jagokienez, andrak babesten ipinten da arreta, baten bat lagunduten etorri behar dan ikuspegiagaz. Eta bai, ondo dagoz, baina bildurra landutea eta andrak ahalduntzea, autodefensa feminista ikastaroak egiten dabean moduan, beharrezkoa da.

Herself pelikulea

Serien bidez be, irudikatzen da andren kontrako indarkeria. Horren alde positiboa da, errealidadea islatzen dabean gero eta telesail gehiago dagozala. Garrantzitsua da *Creedme*, *The fall*, *I may destroy you* eta *Jessica Jones* eta antzeko telesail feministak konsumidutea.

Herself film irlandarra gomendatzen deusuet. Zemendiaren 20an estreinauko da *Volver* a emezar izenburuagaz zinema aretoetan, eta oso ondo dago justizia patriarkalaren gainean hausnartzeko; izan be, tratu txarrak sufriduten dabean andrak, alaben kustodia galdu be egin leikie justizia honegaz.

IGORRE

Argiteriari eta uritresneriari kalteak Igorren

Erredakzioa

Astegoiengan bitan jarraian, kalteak egin ditue Arratiako Udalen Mankomunitatearen egoitzaren inguruan. Zemendiaren 7-8ko astegoiengan, ikurriñarik ez eta masta apurtuta agertu zan, eta aurreko astegoiengan, AUMko egoitzaren inguruko argiteria apurtu eta kanpoko jardinerak San Antonio ermitearen aldatsean agertu ziran.

Jardinerak Udalak konponduko dituala azaldu deutso BEGITURI Andere Ortuzar AUMko presidentek eta gastuen zati bat behintzat aseguru-etxeak hartuko dauala bere gain uste dau. Dana dala, baliabide publikoak horretan erabili behar izatea sentiduten dau Ortuzarek.



Kalteen inguruan ez egoan eze-lango sinadura edo aldarrikapenik; beraz "ekintza bandaliko"tzat jotzen ditue AUMn.

ARRATIA

Ekintzaile gazteak eskualdean enpresak sortzeako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA), enpresaren bat sortu gura dabena gazteentzako 7.000 euroko hornidura daukan programa bat ipini dabe martxan.

Erredakzioa

Eskaerak aurkeztuteko epea abenduaren 11ra arte izango da gazteria.arratia@bizkaia.org posta elektronikoren bidez, edo Mankomunitatearen dokumentazio sarrerearen Erregistro Orokorrean. Oinarri osoak Mankomunitatearen webgunean dagoz.

Dirulaguntzak 18 eta 35 urte bitartekoentzat izango dira, jarduera barriak sortu eta martxan ipinteko gastuak lagunduteko. Jarduera ekonomiko barria, Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan edo Zeanurin alta emonda egon beharko da 2019ko urri lehenengoaren 15aren eta aurtengo urri lehenengoaren 14aren artean. Deialditi kanpo geratzen dira "jokoagaz, tabernakaz edo antzekoak" lotutako jarduerak.

Laguntza ekonomikoak deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzen arabera emongo dira,

eta zenbatekoa eskaera bakotzak lortutako puntuazioaren arabera banatuko da, honako erispide honen arabera: izaera barrizaila (10 puntu), enplegu egonkorra eta kalidatezkoa sortzeako potentzialtasuna (30 puntu), ekimenaren inpaktu soziala (20 puntu), ingurumen-jasangarritasuna (20 puntu) eta proiektuaren jasagarritasun ekonomikoa (20 puntu).

Ekonomia suspertzeko helburua

AUMen ustez, "lehenetasuneko da eskualdean susperraldi ekonomikoa eta enplegu-sorrera bultzatuko dabena ekimenak martxan ipintea, COVID-19aren pandemiak sortutako krisi ekonomikoren momentu honetan. Oingoan, deialdiaren helburua da gazte ekintzailei laguntzea Arratiako eskualdean jarduera ekonomiko eta enplegu-sorrera bultzatzen dabena enpresak sortzean".

ZEBERIO

Nerbioi-Ibaizabal mankomunitadea sortzeako bidean dago

Udalalde 21 osotuten dabena Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko 9 udalerririk, mankomunitadea sortzeako prozesuan dagoz; tartean, Zeberio.

Erredakzioa

Ebatzia oin dala 3 urte hartu zan, zaborrak batu eta tratetako zerbitzua hobetuteko. Zabor bilketea eta hondakinen garraioa izan zala detonatzaila azaldu deuto BEGITUri Karlos Idirin Zeberioko alkateak. Izan be, Udaltalde 21, SL bat izanda, zaborren aurrekontua, lar handia zalako taldearentzat. Ha-ta guzti be, mankomunitadea, zabor bilketa zerbitzutik harago doa, bere

benetako helburua garapen jasangarria bultzatzea dalako. Udaltalde 21eko herriak, mankomunitadea, gizon eta andren arteko aukera berdintasun, ingurumenaren babes eta garapen ekonomikorako baliabide egokia dala jotzen dabe.

Mankomunitatearen helburua zerbitzuak modu eraginkorragoan eskaintzea izango da eta herri bakotzak ebatziko dau zein zerbitzu eskaini herritarrei mankomunitatearen bitartez eta zein

baliabide propioakaz. Edo biak konbinatuta. "Zerbitzu batzuk badaukaguz: gizarte laguntzailea, euskera teknikaria, bardintasuna, gazteria... baina modu bateragarrian eskaini ahal izango dira: oinarrikoak, udalak, eta orokorrak, mankomunitateak" azaldu deuto BEGITUri Zeberioko alkateak.

Bidean

Oindino hilabete batzuk luzatuko da sortze prozesua. Estatutuak BFA-n dagoz onespeneren zain. Gero, akaso aldatetaren bat egin beharko da, publiko egin, alegazioak jaso eta parte izan gura dauan herri bakotzeko plenora eroan botetako.

Mankomunitatearen Osoko Bilkuran udalerririk parteideak d'Hont legearen proportziozko ordezkariak eukiko dabe. Zeberio hiru ordezkari, hain zuzen be.



ZEBERIO

Ekintzak bertan behera ixteko zentsura salatatu dau Zeberioko Gazte Asanbladak

Zementiaren 6rako, Zirikatzen-en Okupazio garaia da! liburu aurkezpena eta Amanita Muskaria taldearen kontzertua programatuta eukan Zeberioko Gazte Asanbladak (ZGA), momentuan indarrean egozan neurri guztiak hartuta.

Erredakzioa

Baina COVID-19aren "atxikiagaz", "Udalaren oztokoak eta poliziaren mehatxuak dirala medio", ekintzak bertan behera ixtera derrigortu dituela salatuta dabe.

ZGAn arabera, ekintza hau aurrera eramateko udaletxean, espazio baten eskaera egin eben, 12 egun lehenago, eguneko egoerara egokitutako neurriak hartuko zirela esanez; hau da, entzuleen arteko distantzia, jente kopuru mugatua, higie-neurriak, eta abar beteko zirela. Ekintza baino egun bi lehenago jaso eben Udalaren ezezko erantzuna. Ezezkoaren errazoa, "COVID-19aren neurriak ziran, beste azalpen barik" dinoe ZGAtik.

Espaziorik izan ez arren, aurrera egiteko, jarduerak kalean egitea ebatzi eban Asanbladak. Ekintzaren bezperan "udaletxean eskaera egin eban kideak, poliziaren

deia jaso eban. Ekintza bertan behera ixteko esan eutsan, agertuko zirela esanez eta isunakaz mehatxatuz". Dana segurtasun neurriak hartuta egingo zala esan arren, "erantzuna izan zan instituzioen babes barik ezin genduala ezer egin. Hau herriko eragile autoantolatuen kontrako eraso moduan hartzean dogu. Honen guztiaren

ondorioz ekintza zentsuratuta izan zala argitaratu genduan bertan behera ixtera behartuak izan gin-lako" azaldu deute BEGITUri.

Kultura eta indar kolektiboa

Egoeraren jakitun, ZGAn salatutena dau COVID-19a dala-eta, kultura eta beste hainbat alor alde batera itxi dirala, osasun egoera latzari, krisi ekonomikoa, jendartearen pobretzea, neurri totalitarioen ezarpena, eta abar gehituz. Honen aurrean asanbladeak garrantzitsua ikusten dau herrian lanean jarraitutea eta ekintzak aurrera eramatea, "egoera txarra dalako bai, baina honeri aurre egiteko kultura, alkarlaguntzea, eta indar kolektiboa beharrezko ikusten doguz". Eta "kapitala eta aktibitate sozioekonomiko deiturikoak baino onartzen ez dituen errealdadean", lanean jarraituko dabela "autoridade deituriko pandemiari aurre egiteko" adierazo dabe Gazte Asanbladakoak.



ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK

Deialdiaren helburua da, 18 eta 35 urte bitarteko gazteek enpresaren bat sortu eta martxan ipinteko gastuak lagunduteko.

XEDEAK

Deialdiaren helburua da, gazte ekintzaileei enpresaren bat sortu eta martxan ipinteko gastuak lagunduteko.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

18 eta 35 urte bitarteko gazteak. Enpresaren bat sortu eta martxan ipinteko gastuak lagunduteko.

BALDINTZAK

Enpresaren bat sortu eta martxan ipinteko gastuak lagunduteko.

ZENBATEKOA, GUZTIRA

7.000 €

BALORETAKO ERISPIDEAK

Laguntza ekonomikoak deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzen arabera emongo dira, eta erispide honen arabera:

- Berriketa zaila (30 puntu 100eko)
- Kalitate-eragile sortzeak (30 puntu 100eko)
- Eragin soziala (20 puntu 100eko)
- Ingurumen-jasangarritasuna (20 puntu 100eko)
- Ekimen-jasangarritasuna (20 puntu 100eko)

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

2020ko abenduaren 11ra.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Huiri jarraitu eta formularioak deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzen arabera bete behar dira.

INFORMAZIO DERRIOA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA
Eskualdeko 48
48100 KORME (Bizkaia)
gazteria.arratia@bizkaia.org
Tel: 94 631 17 17

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetu poligonoa, 10 IEMOA • beerediak@gmail.com

IGORRE

ARRATIA

Opariak egongo dira Igorreko dendetan erosten dabeneztat

Erredakzioa

AME merkatarien alkarreak, #Igorrenerosi promozino kanpaina abiatu dau. Alkarteko denda baten erositakoan, zigilu bat emongo dabe kartilla baten ipinteko eta zigilu kopuru batez opari bat eskuratu ahalko da.

Dendak sei sektoretan bananduta dagoz eta denda bakoitzeko zigilu bakarra egon daiteke kartilla baten. Zementiaren 6ko dekretuak ostalaritza zarratu eban arren, tabernak be atxikitu dira kanpainara. "Zabalduen diranean, danok tabernetara joan

gaitezan" azaldu deusie BEGITURI AMETik.

Hamabi sukaldeko robot, 12 patinete elektriko, 24 lurrunez-tagailu plantxa bertikal, 1.000 motxila-hozkailu, 1.000 aterkin eta 5.000 zorro maskarea eroateko dagoz oparitzeko. Sukaldeko robota lortzeako 48 zigilu behar dira, sektore bakoitzeko 6 gitxienez; patineterako, 45, sektore bakoitzeko 5 gitxienez; lisagailuarentzako 35, 4 sektore bakoitzeko; motxila-hozkailurako 20, 3 sektore bakoitzeko; aterkina lortzeako 15, 2 sektore bakoitzeko eta maskarea eroateko zorroa

oparitzeko da 8 zigilugaz, sektore bakoitzeko bat. Kartilla bakoitza opari baten truke izango da eta gura beste kartilla bete ahal izango dira. Opariak jubiladuen txokoa emongo dabez.

Sei sektoretako 55 saltoki

Honek dira kanpainan parte hartzean dabenez saltokiak. Elikadura sektorean: + Ke pan, Dia, Bea fruta-denda, Pino fruta-denda, Goloski, Kantabriko, Rekalde, Zazpi Haizetara, Lanbreabe, Jasone eta Trad Rumania. Edertasuna: Bizarginak, Surya, Elizabeth, Izaskun Alvaro, Kirru, Guramen, Olaetxe, Nati eta Ilestyle. Ehungintza: Ainara Kirolak, Aldeiturriaga, Iratxo, Kili-kili, Klitz, Lorane, Enar Kirolak, Sein eta Politte. Ostalaritza: Donibane, Ezkiña, Jubilatu, Kuku-ma, Txaparro, Eguzki, Herriko eta Hegazkina. Zerbitzuetan: Araitu,

Arratek, Arratia inbiliaria, Ase-soria Atutxa, Seguros Atutxa, Axa Aseguruak, Inbiliaria Larrea, Lava-Piu eta Avia. Bestelakoak: Orrie, Marrak, Belaustegui, Decoracion y Pintura Igorre, Mugarri, Expert, Garaje Felipe, Igorre altzariak eta Garden.



Lemoako Udalak dirulaguntzak eskatzeko bigarren deialdia zabaldu dau

Erredakzioa

Zementiaren 6an, COVID-19aren pandemiaren egoera dala-eta, beste dekretu batek prebenzino neurriak gogortu eban. Holan, etxeratze-agindua 22:00etan ezarri zan, kultura eta kirol taldekako jardura ez profesionalak galarazo ziran eta ostalaritza zerbitzu guztiak zarratuta agindu zan, beste neurri murriztaile batzuen artean. Indarrean jarraituten dau heritik urteteko debekua, beharrerako, zaintzarako edo beste ezinbesteko aktibidatetarako ez bada.

Martitik ostalaritza sektorea kalte-tuenetakoa da eta dekretu honek ipinten eban kinka larriaren aurrean, SOS Ostalaritza plataformeak deituta milaka lagun urten ziran protestan Bilbon, Gasteizen eta Donostian. Taberna eta jatetxeak gitxienez hila-bete baterako egongo dira zarratuta eta horri aurre egiteko instituzioi laguntzak eskatu eutseezan. Handik gitxira Jauriritzak 30 milio euroko laguntza programak iragarri eban. Horren arabera, taberna edo jatetxe bakoitzak 3.000 eta 4.000 euro bitartean jasoko ditu, daukiezan beharginen arabera.

Neurriok ekarriko dituen kalte ekonomikoakaz jabetuta, Lemoako Udalak herritarri zuzendutako dirulaguntzak eskatzeko bigarren deialdia egin dau. Laguntzok eskatzeko epea zabalik dago abenduaren 14ra arte.



Andren aurkako indarkeria ezabatzeko eguna



Dimako Udala

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET
ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net
BASAURI
946 31 03 99
BASURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BANATZAILEA



begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizitatea diseinatzeko deia.

Publizitate eskusiboa, zure enpresa IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukera eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKERIA Diseinua + 4 aldiz modulo 1 BEGITUan	95€*	2. AUKERIA Diseinua + 4 modulo BEGITUko portadan	135€*
--	-------------	---	--------------

Publizitatea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.



Kutxabank
EUSKARALDIArekin

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Azaroak
25



INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN ZAINDU DAIGUN ALKAR



IGORREKO
UDALA

BEGOÑA PEDROSA

"Nire egitekoa hezkuntza komunitadearen zerbitzura egotea da"

Hezkuntza Sailburuordea da Begoña Pedrosa Areatzakoaren eginkizuna hezkuntza estrategiak diseinatzea da. Horretarako beti aldagai asko hartu behar izaten dira kontuan, baina COVID-19a dala-eta, oindino konplejuagoa da oin eta bere erronkarik handiena hezkuntza munduan ilusinoa berreskuratzea dala dino.

Aurrez aurreko eskolen aldekoa da Sailburuordea, beste gauza batzuen artean, arrakala soziala txikitzeko behar-beharrezkoa dalako. Eta osasun neurriakaz be, proiektuetan oinarrituako irakaskuntza aurrera atera daitekela sinisten dau.

Mondragon Unibertsitateko dekanoa eta zuzendaria izandakoak, argi dauka hezkuntzak etorkizuna eregiten dauala.



Begoña Pedrosa.

Erredakzioa

Ikasturte berezi honetan, zein da Hezkuntza Sailburuordearen lana? Zeintzuk dira zure lehentasunak?

Nire egitekoa da hezkuntza komunitadearen zerbitzura egotea. Horrek esan gura dau testuinguruak sortu behar dirala alkarrerentzuteko eta hortik eregiteko.

Taldean egiten dogu lan, hezkuntza esparruan estrategiak disenaitzen. Nire lana da taldeki-deakaz koordinetea eta danon artean, identifiketea zeintzuk diran epe luzeko erronkak.

Ikasturte sano berezia izaten ari da hau. Martitik pandemia batetik

gatoz, eta ikasturtea hasi da eszenaleku barri baten. Aurrez aurreko eskolak etapa guztietan mantendutea da hautua: hori dago adostuta hezkuntza komunitadeagaz. Nik uste dot hor danok gagozala ados, batez be ikuspegi sozialetik, testuinguru eta egoera desbardinak dagozalako. Eskolatzeko prozesua mundu guztiarentzat bermatzea oso inportantea da.

Hori izan da apustua eta ikasturte guztietan sano lan ona dabiz egiten. Irakasleak, zuzendaritza taldeak... benetan ahalegin handia dabiz egiten osasun zaintza egiteko, martxan jarri diran protokolo guztiakaz. Eta gainera, hezkuntzako proiektuak aurrera erroten eta etapa bakoxtari jagokon plangintzeari heltzean, esfortzu gehiagarri bat egiten dabe.

Momentu honetan lehentasunak dira zentroai entzutea, euren egoerea ondo ulertzeko; laguntzea, eta aldi berean, barriro ilusinoa ekarte hezkuntza mundura. Niretzat hori da momentu honetan, erronkarik handiena.

Ikasturtea hasi aurretik emoten eban ikastetxeetan koronabirusa erraz zabalduko zala, baina ikusi da ez dala holan izan, ezta?

Ikusten gabizana da egunero daukaguzala COVID kasuak ikastetxeetan, baina egia da ikusi dala esparru segurua dala. Hori frogatu dogu daborduko. Erne egon behar gara, ha-ta guzti be, eta ikusi zer aprobeitxau geinken hemendik. Hor gabiz fokua ipinten.

Alkarlanerako espazio batzuk zabaldu doguz Hezkuntza Sailean eta astero biltzean gara ikastetxeetako zuzendaritza taldeakaz. Informazioa ikastetxe guztietara heltzea oso inportantea da. Osasun zaintzari jagokozan protokoloak aldatu egin dira bagiletik hona, eta komunikazio hori ondo egin behar da.

Etapa bakoxtean neurri desbardinak dagoz HH eta LHko lehenengo zikloan, burbuila taldean dagoz. Orduan burbuila-taldeetan umeak ez dabe maskararik erabilten. Hori da beste lan egiteko modu bat. Maisu-maistrak bai erabilten dabez, baina umeak ez.

Bigarren ziklotik aurrera maskarakaz egon behar dira momentu guztietan, irakasleak eta ikasleak. Baina ikastetxe bakoxtaren planifikazioa, desbardina da daukiezan espazioen arabera.

Osasun Sailagaz barikuro biltzean gara. Batzorde misto bat dago. Guk planteetan doguz ikastetxeetatik jasotako kezak eta kontrastu egiten dira Osasun Sailagaz. Batzuetan aldatu egiten dira gauzak. Eskola Kirola, adibidez. Oin azkenengo ebatziagaz bertan behera geratu da. Edo eskolaz kanpoko ekintzak: kurso hasikeran ez ziran aktibau baina gero ikusi da espazio segurua dala, hezkuntza espazio guztiak seguruak dirala.

Adostasun batzuetara heldu eta gero, koefiziente batzuk begiratu eta datuen arabera, hartzean dira ebatziak.

Ikasturte hasikeran protestak egon dira Jaurlearitxari plani-

Azaroak 20,
19:00
Manez bakarka kontzertua
Komentuan

Azaroak 27,
19:30
Laburbira, film laburren emanaldia
Udaletxeko Areto Nagusian



Abenduak 2,
19:00
Bakean dagoena, bakean utzi!
Umirezko berbaldia
Udaletxeko Areto Nagusian

Abenduak 3,
18:00
Euskaraldiko argazki herrikoia
Plazan

AREATZAKO UDALA EUSKARALDIAREKIN BAT

Edukiera mugatua. Izena aurretik eman behar da 94 673 90 10 telefono zenbakian. Izena eman dutenekin edukiera gaintitzen bada, zozketa egingo da.

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra Eman izena euskaraldia.eus webgunean

fikazino faltea leporatuz eta eskatu izan dira baliabide gehiago, ratioak jeistea...

Ratioen gaia ez da izurrite honegatik etorri jakun gai bat. Ratioen gaia beti dago bolo-bolo sisteman. Nik esango neuke gure ratioak oso onak dirala eta gaitortu egin behar dogu eztabaida hori.

Baliabide gehiago emon egin dira eta konpromiso batzuk hartu izan dira. Ikastetxeak aukera emon jakie baliabide gehigarri horreek zer egin ebatzeko, euren preminen arabera erabilteko. Ikastetxe bakoitzak bere erabakiak hartu dauz. Adibidez, ikastetxe batzuetan ebatzi dabe euskeren errefortzu moduan erabiltea baliabide hori, orduan euskerazko irakasle bat bialdu jakie.

Ze eragin daukie hartutako neurriak irakaskuntzaren metodologian?

Maskarearen erabilereak euki dau inpaktu txiki bat erabilten doguzan metodologietan. Hori da daukagun errealitatea momentu honetan, baina bueno, aldi berean, teknologien erabilereak gauzak beste modu sortzaileago baten egiteko aukera emoten dau.

Begirada positiboa euki behar da; egoera honetatik zer ikasi ahal dogun pentsatu. Argi daukagu eskolea presentziala izan behar dala. Ze hor dagoz beste elementu batzuk, alkarrekintzaren garrantzia, ikuspegi sozialetik egin daitezkean arrakalak eta abar. Baina lehen planteetan ez ziran gauzak oin planteetan dira aukera moduan.

Arratiari jagokonez, nik pentsetan dot metodologia barrien inguruan hasi behar dogula berbetan. Aprobetxau behar dogu momentua, behintzat, eztabaida eta hausnarketa hori egiteko. Benetan, gelan, zeintzuk diran inpaktua daukiezan eskuhartzeak eztabaidatzen hasi behar gara. Aprobetxau behar dogu

egoera hau pentsatzeko etorkizunean eta daukaguna hobetzeko.

Badagoz esperientzia oso onak gure hezkuntza sisteman, batez be, zuzendaritza eta lidergo konsolidatu bat dagozan lekuetan eta ikusten danean inplikazio hori hezkuntza komunitate osora zabaltzen dala. Hezkuntza komunitate osoa esaten dodanean, zera esaten dot: klustroa, gurasoak... Komunitate guztia inpliketan danean, proiektu oso politak urtetan dira. Eta asko daukaguz bailara honetan. Esperientzia interesgarriak puntapuntakoak. Nik esango neuke HH eta LHko ikastetxe ia guztiak hor dagozala sartuta: Areatza-Zeberio aspalditik dagoz alkarlanean, Artean, Zeanurin... Hainbat eta hainbat dabiz proiektuak lan egiten, edade desbardinetan umeak barraiatzen...

Neurri barriak hori gatxa izango da aurrera ateratea, ezta?

Bai, sormen handia euki behar da, baina ibili gara ikastetxeak bisitetan azkenengo asteotan eta nik ikusi dodaz proiektu barritzaileak martxan jartzen neurriak ondo zainduz.

Konpromiso handiko profesional bikainak daukaguz hezkuntza munduan eta sortu behar doguz testuinguru barriak profesional horreek sartzeko eta alkarrengandik ikasteko. Ze gauza oso esanguratsuak egiten dira.

Bailaran proiektuak egin dira guraso eta ikasleen artean eta erreferente dira. Eskola txikiko sarean erreferente dira Zeberio eta Areatzako eskolak.

Zelan ikusten dozu online ikaskuntza? Unibersidadean gero eta gehiago dira online ikasketak.

Online ikaskuntza baino nik digitalizazio prozesuez egiten dot berba. Digitalizazioa geldituteko etorri

zan aspaldi. Ha-ta guzti be, egia da unibersidadean aurrez aurreko ikasketa prozesua eta unibersidade bizitea oso inportanteak dirala. Harreman sozialak oso inportanteak dira hezkuntza prozesuan, pertsonen garapenean, komunitate izan hori ikasteko zertan datzan, kooperazio proiektu bat bultzatzeko...

Nik aukera izan dot, unibersidade batzuk bisitetako azken urteotan nazinoarte mailan. Gaur egun berba asko egiten da ikaskuntza hibridoaz, presentzialitatea eta online ikaskuntza buztartzen dauanaz. Ondo prestatu behar doguz irakasleak marko pedagogiko barri horretan eta konzientziara ekarri behar dogu online irakaskuntzatik be gauza inportanteak eta gauza interesgarriak egin daitezkeala. Eta

Arrakala digitala, arrakala soziala da

Eskola txikiko sarean erreferente dira Areatza eta Zeberioko eskolak

Gure ratioak oso onak dira eta gaitortu behar dogu eztabaida hori

Ikusi da hezkuntza espazio segurua dala

buztatu ahal dala presentzialitatean egin daitezkean beste jarduerarak batera. Batzuetan esperientzia jasangarriagoak egin daitezke ondo diseinatu dagoan online irakaskuntza bat sartzean badogu. Eta adibidez, bagabiz oin pilotajetxo bat egiten bigarren hezkuntzako hainbat institututan.

Nik uste dot pandemia honetatik ikasi doguna dala ez dala bakarrik remoto baten jartzea gela bat, baizik eta ikastea zelan hobetu daiteken ikaste-irakaste prozesua ikuspegi tekno-pedagogiko batetik. Eta oin ez gabiz teknologiaz bakarrik berba egiten, pedagogiaz baino. Pedagogia jasangarri bat ekarteaz. Eta hor aukerak identifikatu behar doguz.

Erdigunean ikaslea ipini behar dogu, ikaskuntza prozesuan ikaslea motibatu egon behar da. Eta ikaslea engantxau. Atxikimendu hori lortzeako, oso inportantea da metodologia barritzaileak erabiltea.

Horregaitik dinot aukera moduan irakurri behar dogula egoera hau, nahiz eta gogorra izan.

Umeak 6 hilabete egon dira eskolara joan barik, hori igarriko zan bueltan: formazio gitiago batez be talde sozial zaurgarrietan.

Diagnostiko bat egiten gabiz. Atzenengo asteetan ariketa bat egin dogu zentro guztietatik argazki hori ondo aterateko. Identifiketako zeintzuk diran beharrak familiaren ikuspegitik eta formakuntza ikuspegitik. Hor hartu-emon zuzena egon da zuzendariak diagnostiko on bat egiteko. Momentu honetan badaukagu argazki oso zehatza zentro guztien. Eta zentro asko dagoz erkidegoan.

Horreen artean bai dagozala zentro batzuk ba igoal gurasoen profilagaitik edo dana dalakoa-

gaitik beste laguntza bat beharko dabena. Ziurtatu gura dogu guztiak izango dabela euren dispositiboak eta horretarako gabiz diseinetan lau urtetako plan digital zehatza. Lehentasuna izango da. Ikasturte honetan ondo-ondo diseinatu behar da hori hurrengo lau urteetan askotan aitatzen dan arrakala digital hori gaitortzeko. Zentro guztietara ailegau daiten. Arrakala digitala, arrakala soziala da-eta.

Beste hausnarketa bat guraso alkarreaz bultzatzen gabizana da, zelan lagundu familiei, ze formazio mota emon ahal jakien... kontuan hartuta familia batzuk, alfabetizatu barik be egon daitezkeala, beste kultura batetik datozelako edo dana dalakoagaitik. Hori guztia agendan dago.

Oso inportantea da ulertzea ikastetxe baten proiektua komunitate terminoetan. Hor beharrezkoa da udalaren inplikazioa eta apiletik hona ikusi doguz praktika on asko. Udalaren inplikazioagaz, zuzendaritza taldearena-gaz, gurasoakaz batera...

Gurasoen inplikazioa be oso inportantea da. Eta guraso mota asko dagoz. Hemen aniztasun ikaragarria dago. Izan be, hezkuntza komunitatearen isla da.


Etorkizunari begira, pandemiako umeak eukiko dabe behar beste formakuntzarik? Eta kapaz izango dira besteakaz harremanetan egoteko?

Nik ez dakit ze etorkizun daukien, baina nik badakit gure zeregina non zentrau behar dan. Ikastetxeetatik lan oso ona egiten dabiz, konfinamendu garaian, eta ikasturte honen hasieratik, be emozionalitatea landuteko. Hezkuntza oso inportantea da, gure esku dagoz datozan belaunaldiak zelangoak izango diran definitzea eta nik uste dot horregaitik ahalegin berezi bat egingo dala hemendik aurrera hezkuntza indartzeko eta zentralidadera ekarteko.

Momentu honetan inportantea da ilusino mantentzea, alkarlanean jardutea. Hemen ez dago administrazioa alde batetik eta ikastetxeak bestetik, danok gagoz tren berean. Erantzukizun handiko lana da, etorkizuneko pertsonak hezten gagozalako eta Hezkuntza Saitetik ahalegin guztia egingo da hori patxadaz eta ondo egiteko.

Gero, bidean, gauza asko gertatuko jakuz, baina hau ez da epe laburrean amaituko dan zeozer, honekin biziten ikasi behar dogu eta ikasi behar dogu beste tresna batzuk erabilten, ikasi behar dogu gauzak beste modu baten egiten eta hori egingo dogu danok alkarlanean eta batera bagoaz. Ilusino mantentze egin behar da, hezkuntza pasino da eta pasino barik ez dagoalako motibaziorik.





ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten"

0-18 urtera arte

* Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikoak.

* Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre eta Zornotza.

* Matrikula urte osoan zabalik.



Bisita gidatuak eta informazio gehiago: ☎ 94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus

EDUKIONTZI MARROIA

Orain leku gehiagotan poltsa konpostagarriak debalde

Txartelagaz lortu:

Areatzan: Dendabari

Artean: Urki Mendi

Bedian: Liburutegia

Diman: Aliprox

Igorren: Beatriz eta Pino frutategiak

Lemoan: Kiroldegia, Liburutegia eta Matsosu frutategia

Zeanurin: Txoko Sagarna

Mankomunitatean eta udaletxeetan ere



INGURUMENAREN ALDE JOKATU ETA APUNTA ZAITEZ!!

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA:

94 631 17 17 · arratia21.ariatia@bizkaia.org



INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTU

**AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA**





Karmengo Ama Ikastetxea
AMOREBETA-ETXANO

IKASTETXOAK

**ETORRI HAZI
ETA GUREKIN**
pertsonagintzan

Kanpoko espazioak ikasteko aukera parebakoa bihurtu dira Karmengo Ama Ikastetxean

Covid-19ak eragindako krisiak ezohiko egoera baten kokatu dau irakaskuntza, eta hezkuntza komunitadeak eskura dituan baliabide guztiak erabili behar izan ditu. Helburua, ikasleen segurtasuna bermatzea izan da, hezkuntza proiektua aurrera doan neurrian. Ikaskuntza prozesua ezin dalako pandemiagaitik gelditu.

Eta erronka hau abagune handia izan da Zornotzako Karmengo Ama Ikastetxearentzat. Ikastetxeak ahalik eta gehien baliatu ditu bere instalazioak eta ingurunea hezkuntza proiektuan txertatzeko eta ikasleei ikaskuntzan aurrera egiteko tresna erabilgarriak emoteko.

Karmengo Ama Ikastetxeko jolastokiak -8.000 m2 inguruko instalazioak- beste ikasgela bat bilakatu dira. Bertan, umeei, besteak beste, honakoak ipini ditue martxan: talde-lana edo ikaskuntza kooperatiboa moduko metodologiak, sormena sustatzeko ekimenak, motrizitatea Haur Hezkuntzan edo ikaskuntza sustatzen daberen proiektuak. Hori guztiori, kanpoko espazioez gozaten daberen bitartean.

Ez bakarrik hori. Inguratzen gaituan natura biztugarri garrantzitsua da euren ikaskuntzarako. 'Gela edegi' honeetan ikasleak teoretik praktikara pasetan dira eta 'in situ' ikasten dabe, modu zuzenenan, horrek ulermena errazten dau eta egunerokotasunean motibatu egiten ditu. Holan, Jauregibarria parkea edo Haresti eta Belatxikita bideak, kirol praktikatzen, ikaskuntzarako eta talde gozamenarako ingurune osasungarri eta propioak, ikastetxearen hezkuntza jardueraren zabalkunde dira, inoz baino gehiago.

"Aire zabaleko hezkuntza jarduera presentzialak begiak zabaldu deuskuz; aukerak oso zabalak dira eta horregaitik ipini doguz martxan. Gainera, ikasleek oso motibatua ikasten dabe", dino Kristina González Karmengo Ama Ikastetxeko zuzendariak.

Adibideak ugariak dira ikasturteko lehen aste honeetan. Patioan ipinitako piknik mahaia Haur Hezkuntzako txikien idazmahai barriak dira, matematika ikasten hasteko, sormena bultzatzeko edo taldean lan egiteko; birziklatzeak eta jasangarritasunaren kulturak zentzu handiagoa hartzen dabe parkeetara eta lorategietara urteten diranean eta jolas-parkea, dibertigarria izateaz gain, hezkuntza proiektuak garatzeko gune bat be bada.

☎ 94 673 09 35
✉ cmtdiazkaritza@karmengoama.eus
🌐 www.karmengoama.eus



Gugaz harremanetan ipinteko

Publizitatea:
649 979 115

begitu

94 631 73 14
eta
649 979 112

✉ begitu@topagunea.com

🌐 www.begitu.org

U2T UBITE
ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92
e-mail: ubltemat@ubltesl.com
Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A
48140 IGORRE (Bizkaia)

**ERA GUZTIETAKO
MATERIALAK
ERAIKUNTZARAKO**

◦KARE BIZIA
◦MATERIALA ETXERAINO
EROANGO DEUTSUGU. 1000
KILO ARTE

ESTELEHENETIK BERRIKURX
07:45-12:45
14:00-18:30
ZAPATUETAN
08:30-12:30

Laburbira
Euskarazko film laburren XVII. zirkuitua - 2020
Martxoaren 9tik apirilaren 8ra

 GAU BELTZA Euskaltzaleen Topagunea	 URAK DAKARRENA Marilyn taldea	 ANTI Jesu Martinez
 TIGRE BAT Amaia San Sebastian	 PIL PIL Kristina Zorita	 MAMARRO Ibon Iza Totorika
 KATEAK Yolanda Mazkieran	 JAUZI BAT ETA PRIXT Maitane Eyheramaho	 HARRIA HERRIA Dimegaz Kultur Elkarte

EGUNA: Zemendiak 20 / Zemendiak 27 **ORDUA:** 19:30

TOKIA: Lasarte Aretoa Igorre (zemendi. 20) / Areatzako Udal Aretoa (zemendi. 27)

ANTOLATZAILEA: Zertu Kultur Elkarte

****Ibon Iza Totorika zuzendari arratiarra egongo da Areatzan.**
topagunea.eus/laburbira

Instagram, Facebook, Twitter

Antolatzailea: Euskaltzaleen Topagunea
Babesleak: Bizkaia, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa, Leizola, Euzko Leizola, Euzko Leizola, Euzko Leizola
Laguntzailea: TOKIKOM

PELOTEA

Amaia Alday eta Ainhoa Ruiz de Infante finalerdietarako sailkatu dira Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketan

Erredakzioa

Osasun egoera eta neurri barriak dirala-eta, Lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketa bertan behera geratu da, baina antolakuntzeak binakako txapelketa alternatibo bat ipini dau martxan. Bertan, 16 pelotarik hartean dabe parte, Ainhoa Ruiz de Infante eta Amaia Alday, tartean. Arratiakoak, zemendiaren 8an Legution jokatu eta finalerdietarako sailkatu ziran.

Ainhoa Ruiz de Infante Txumuluuetako pelotariak eta Miriam Arrillagak, Leire Garai eta Gentzane Aldairen kontra jokatu eta 22-8 irabazi eben. Ruiz de Infante eta Arrillagak aurrea hartu eben markagailuan hasikera-hasikeratik. "Partidu on eta zuzen bat eginda arazo barik lortu dabe finalerdietarako pasea. Ainhoak sakez min asko egin dau, eta aurrean abia-

dura sartuz tantu batzuk be lortu dauz. Horreri Arrillagak atzean erakutsitako nagusitasuna gehituta, partiduan nagusi izan dira" azaldu dabe Txumuluuetatik.

Amaia Alday dimoztarrak eta Oihane Orbegozok barriz, asko sufridu eben pasea lortuteko. Miren Larrarte eta Arrate Bergarari 22-20 nagusitu jakien. Larrarte eta Bergara 21ean bardintzeko puntuan egon ziran, baina epaileak ontzat emon eban Amaia Aldayk eroan eban dudako pelota bat eta partidua irabazteko azken sakea egin ahal izan eban dimoztarrak.

Finalerdiak

Finalerdiak abenduaren 6an jokatzekoak dira. Ainhoa Ruiz de Infante eta Miriam Arrillagak, Patri Espinar eta Naroa Agirre izango ditue aurrez aurre; Alday eta Orbegozok, Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldai.



MENDIA

Alex Txikonen Mendi biluzia filma Igorren hilaren 26an

Erredakzioa

2016an, Nanga Parbat-era egindako neguko igoera kontetan dauan Txikonen pelikulea ikusgai egongo da Igorreko Lasarte Aretoa zemendiaren 26an, 19:00etan. Sarrerak aldeztuak dira.

Mendizale lemoztarraren proiektu sano personal hau, konfinamentuan landu eban, peliku-

lea eta liburua sortuz. Filma Bilboko Euskaldunak estrenau zan zemendiaren 2an eta harrezkerotik, herriz herri dabil. Filmak ordubete baino apur bat gehiago irauten dau eta Red Bull Media Housek ekoiztu dau.



KIROL ASTEA

Kirol eta Ariketa Fisikoaren Astea Lemoan

ASTELEHENA 16 LUNES

LEMOAKO KIROL ETA ARIKETA FISIKOAREN ASTEKO I. ARGAZKI LEHIAKETA
I. CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE LA SEMANA DEL DEPORTE Y ACTIVIDAD FÍSICA DE LEMOA
Azaroak 16-22 noviembre | www.lemoa.net

EGUAZTENA 18 MIÉRCOLES

GURPIL GAINEAN TREBE HÁBIL SOBRE RUEDAS
16:30 Eskola... grupos de 6... Azaroak 2-15 noviembre

GANZABAL MENDI TALDEKO BAZKIDEEN PROIEKZIOA - PATXI LOPEZ "GUATEMALA VOLCANES Y LAGOS EN EL PAÍS DE LOS MAYAS"
PROYECCIÓN DE SOCIAS/OS DE GANZABAL MENDI TALDEA - PATXI LOPEZ
19:30 Jubilatuen gaineko aretoa Sala ubicada sobre el hogar de personas jubiladas | 35 pertsona
ganzabalmt@ganzabalmt.org | Azaroak 11-17 noviembre

BARIKUA 20 VIERNES

"MUNDU BAT MOTXILAN" AURKEZPENA
PRESENTACIÓN "MUNDU BAT MOTXILAN"
HIZLARIAK PONENTES ALEX TXIKON / UNAI ORMAETXEA
19:00 Jubilatuen gaineko aretoa Sala ubicada sobre el hogar de personas jubiladas | 35 pertsona
www.lemoa.net | Azaroak 2-15 noviembre

PR LEMOATXA 1937 IBILBIDEA
RECORRIDO PR LEMOATXA 1937
19:30 Gazteleku... Azaroak 2-15 noviembre

DOKUMENTAL PROIEKZIOA "IÑAKI OTXOA DE OLZA"
PROYECCIÓN DOCUMENTAL
19:30 Gazteleku... www.lemoa.net

DOMEKA 22 DOMINGO

LUBAKIAK EZAGUTZEKO IBILALDIA
PASEO POR LAS TRINCHERAS
HIZLARI ETA BIDE... MIKEL GARCIA
19:30... 30 PERTSONA
www.lemoa.net | Azaroak 2-15 noviembre

Superficie enanti firmak dardela eta ezinza bidez atzeratu behar izango dira. Las nuevas medidas de seguridad han obligado a postergar algunas actividades.

ORL. ABIZ | GANZABAL | Berba | LEMOA UDALA

Erredakzioa

Jarduera baxotxean jagokon aforo mugatuagaz eta indarrean dagozan neurri guztiakaz, baina Lemoako Udalak, herriko alkar-teakaz batera, Kirol Astea antolatu dau aruten be, zehazkiaren 16tik 22ra. Aurreko urteetako baino apalxoagoa izan arren, berbal-diak, proiektzioa eta argazki lehiaketa egongo dira herritarren artean kirolaren alde ludiko eta osasunerako daukan garrantziak konzientziatuko. Alex Txikonek *Mundu bat motxilan* liburua aurkeztuko dau Unai Ormaetxeagaz batera eta eurakaz berba egiteko aukerea egongo da barikuan.

Zehazkiaren 17, martitzena

Aste osoan, hilaren 22ra arte, Lemoako Kirol eta Ariketa Fisikoaren

Asteko I. Argazki Lehiaketa.

Zehazkiaren 18, eguaztana

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen proiektzioa. Patxi Lopezek *Guatemala, volcanes y lagos en el país de los mayas* ikusteko aukerea egongo da Jubilatuen etxeko goiko aretoan. Izena hilaren 17ra arte emon ahal da ganzabalmt@ganzabalmt.org helbidean.

Zehazkiaren 20, barikua

19:00etan, *Mundu bat motxilan* liburuen aurkezpena eta berbal-dia Alex Txikon eta Unai Ormaetxeagaz batera. Jubilatuen etxeko goiko aretoan. Euskaraldiaren programa barruan be badago ekintza hau.

19:30ean, *Iñaki Otxoa de Olza* dokumentalaren proiektzioa Gaztelekuan.

FUTBOLA

Nazionalen Arratia A taldearenak izan ezik, entrenamentuak eta konpetizinoak bertan behera

Erredakzioa

Hilaren 2an, Arratiako Futbol Taldearen zuzendaritzek emon eban jakitera, talde guztiatiko entrenamentuak, maila nazionalen jokatzeko dauan taldearenak izan ezik, bertan behera geratzen zirela. Izan be, alde batetik kutsatze kopuruak, eta bestetik herrikoak ez ziran jokalariek ezin zirela Igorrera entrenetan joan eta "entrenamentu egokiak ezinezkoak" ziran. Egun batzuk beranduago, zehazkiaren 6ko, 38/2020 Dekretuak, Eskola Kirola jarduerak eten

ebazan beste abisu bat emon arte.

Nazionalen ligak jarraituten dau eta nesken A taldeak jarraitzen dau entrenamentu eta ligako partiduakaz, baina halan-holan. Hiru jardunaldien ostean, partidu bi atzeratuta, bakarra jokatu dau eta sailkapenean, zortzi taldetatik seigarren dago, puntu bakarragaz.

Urri bigarrenaren 18an ziran jokatzeko lehenengo partiduak Añorgaren kontra baina atzeratu behar izan ziran. Gauza bera gertatu ziran zehazkiaren 8an jokatu behar ebanagaz Bizkerreren kon-

tra, atzeratu egin behar izan zala COVID-en kasuren bat zala-eta.

Urri bigarrenaren 24an, jokatu eban Arratiak oin arte jokatu dauan partidu bakarra. Etxean, Urbietan, Tolosaren kontra jokatu eban eta husna amaitu ziran partiduak.

Hurrengo partiduak, gauzak ondo bidean, zehazkiaren 21ean, 15:30ean izango da Oartzunen kontra, etxetik kanpo.

COVID-19a eta kirola

Kirola izan da kalteuenetariko arloa zehazkiaren 6ko dekretuak dala eta. Eskola Kirola eta talde-kako kirol jarduerak ez profesionalak galarazo dira. Arratian, kirol gehiena maila honetakoa da eta ume eta gazte asko geratu dira kirol praktika barik. Lemoako Kirol Asteak be murriztu egin behar izan dau egitaraua. Bertan behera geratu da be Enduroko taldeak egiten eban urtekerea. Igazkoa hogeta hamargarrena izan ziran eta laurogei motorzale inguru batzuan ziran urtero.

Etxeko Janaria Zure Etxean
Jandoniz Egoitzaren Zerbitzu Berria

Bel Edad Berria
Zure gustua

Betiko janarian zure etxea
Etxera eramateko janariaren zerbitzuak dieta orekatu eta osasuntsua eramaten laguntzen die gure nagusiei, etxean bertan. Karta-zerbitzua da; bazkaria, azeria edo biak eska daitezke astean nahi duzun beste egunetan, inolako konpromezurik gabe.

Neurrira egindako dietak
Askotariko menuak ditugu, testura ezberdinekin eta zure beharrezarera egokitutako dietak.

Banatu baino askoz gehiago
Banatzaileak astean hiru aldiz bisita egiten dizunean iraingitze datak begiratuko ditu. Termoseilatatu bidez ibiltako ontzietan banatzen da janaria, kalitate osoa bermatuz.

SARRERA
PLATER NAGUSIA
OSAGARRIA
POSTREA
OGIA
8,95€
BEZ-a barne

1 BANAKETA
Eskaria aurreikusitako ordutegian helduko da

2 BANATZAILE JATORRA
Banatzaileak aurretik utzitako janaria beraztertu eta eskari berria utziko dizu

3 INFORMAZIOA
Ontziak nutrizio informazioarekin eta iraingitze datakekin etiketatuta daude

4 KONTSERBAZIOA
Ontziak hozkailuan gorde behar dira kontsumo unera arte

5 PRESTAKETA
Plastikoa zulatuta eta berotujanaria 3 minutuz mikrohuin labean

3 MINUTUAN PREST

GOGORATU!!! Behin ontzia irekita, 24 orduko epean kontsumitu

JANDONIZ NAGUSIENTZAKO ETXEA
JANDONIZ, 2 KALEA
48390 BEDIA
INFO@RESIDENCIAPARAMAYORESJANDONIZ.ES

946313130

EUSKERA

Euskerearen inguruko gazteen kontakizuna egiteko euskera hutsean biziko dira 9 gazte

Erredakzioa

Euskaraldiaren testuinguruan, Euskal Herriko hainbat euskera taldek, harago eroan gura dabe ariketea. Zementiaren 12tik 19ra, eremu geografiko eta soziolinguistiko desbardineta 9 gazte euskera hutsean biziko dira, gaztelania eta frantsesa erabili barik, 2015ean Lutxo Egiak hilabetez egin eban legez. Ariketearen helburua, gazteak euskeraz bizitzaren alde lerratzea da eta belaunaldi baten kontakizuna ardaztea.

Euskaraldiaren inguruan egongo da aktibazio soziala gazteen artean be bultzatu gura dabe antolatzaileak. "Egitasmoak izan leiken irismena baliatu gura dogu, euskeraz biziteko daukaguzan oztopak azaleratuteaz

harago, gazteen konzientziak bizteko eta aktibetako; hau da euskerearen erabilerearen hauta egiteko" dino IEP euskera taldeak prensa ohar batez. Izan be, euskera hezkuntza formalean igo egin dan arren, erabileak behera egin dau. Faktoreak identifikau eta arnagune bihurtu gura dabe eta gazteen parte hartzea Euskaraldian, kuantitatiboa izateaz gainera, kualitatiboa be izan daitela.



LEHIAKETEAK

Atsotitz Lehiaketea

Erredakzioa

Iberba hizkuntza aholkularitzak eta Oskia Karrera Tolosako argazkilariek esakera zaharrak eta argazkiak buztartzen dituan lehiaketa bat ipini dabe martxan.

Parte hartzeako atsotitz bat irudi baten txertatuta bialdu behar da info@kukubat.eus helbide elektronikora edo 656 303 767 telefonora urtea amaitu baino lehen. Irabazleak 100 euroko saria jasoko dau.

EUSKERA

50 baino behargin gehiagoko enpresak euskera planak izatea proposatu dabe

Erredakzioa

ELA eta LAB sindikatuak eta Kontseiluak, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako lanbide arteko itunetan euskera planak egin beharreko neurria sartzea eskatu dabe. Kontseiluak, lan arloa euskalduntzea ezinbestekotzat jotzen dau euskerearen

normalizazioa garatzeko.

Sindikatuak, beharginen eskubideen aldeko burrukan, hizkuntza eskubidea be sartu gura dabe eta Eusko Jaurlaritzari deia egin deusie euskera planak negoziatetako neurria babestu dagian eta plan horreek aurrera aterateko inbersino ekonomikoa bideratu dagian.



Argazkia: LAB sindikatua.

ANTZERKIA

Antzerki aukera oparoa Lasarte Aretoan

Hiru antzezlan programau ditu Igorreko Kultur Etxeak, data horreetan COVID-

19aren neurriak galarazoten ez

badabe, denpora bat eta gero jenteak antzerkiera joateko aukerea izan dagian.

Nagusientzako lan bik eta umeentzako batek osotuten dabe eskaintzea.

Erredakzioa

Lehenengoa umeentzako izango da. Izan be, umeak barre egiteko aukera izan dagien, Tomaxen abenturak pailazoen *Azken balearen* emondia antolatu dau Kultur Etxeak, hilaren 21eko arrastiko 18:00etarako. Kultur Etxeko bazki-deak debalde izango dabe saio hau.

Birritan bortxatua antzerki dokumentala

Zementiaren 25eko, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatze

Nazinoarteko Egunaren harira, bezperan, 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean, *Birritan bortxatua* izeneko dokumental estiloko antzezlan egongo da ikusgai, Aldatzen Laguntzen Antzerki Taldearen eskutik. Antzezlan, Nagore Laffage eta Iruñeako talde bortxaketan oinarrituta dago eta andrazko baten bortxaketearen ondorengo biktimizazio bikotxean sakonduten dau. Antzezlan honetako alkarrizketa batzuk, ez dira fikziozkoak, benetakoak baino. Epaietako galdera gehienak,

esaterako, benetako epaietako galderak dira, gehienbat Iruñeako talde bortxaketearen eta Nagore Laffageren epaietakoak, hain zuzen be. Antzezlan, 2020ko zezeilan estrenau zan arrakasta handiagaz eta udagoienean, Saioa Royo eta Ion Martinez aktoreak ekin deusie barrero lana herriz herri antzeztari.

Ez dok ero autofikzioa eszenalekuan

Zementiaren 28an, 19:00etan, Tartean Teatro konpainiak Patxo Telleriaren *Ez dok ero* antzezlan taularatuko dau Lasarte Aretoan. Lan honek, "euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen irudi deformadua, barregarri eta aluzinadua" eskaintzen dau. Mikelote eta Pantxo, On Kixote eta Santxo Panzaren arketipoak, dira protagonistak. Mikelote eta Pantxo, desegin dan bikote artistiko bat da. Pantxok erretiroa ondo hartu dauan arren, Mikelote, "antzerkilari andante" estrafalarioa, Pantxoren bila joango da, trasteak prestau eta Euskal Herrian zehar joateko, herriz herri antzeztara.



tea bera errespetoa garatzea da eta entzutea ikastea da".

Ikasleak zein hizlaria gustura egon zirala eta Arratia eta Zeberioko eskolak batera egotea jarduera honetan esperientzia polita izan dala balorau dabe Zeberioko eskolan.

Aurrez aurrekoa gurago

Jarduera bateratu hau ondo balorau arren, aurrez aurrekoa lehenesten dabe Zeberioko eskolan. "Pantaila aurrean hizlariaren eta umeen arteko konexinorik ez dago, ez dago konplizidaderako aukerarik ezta begiradarik be; hori ezin da lortu aurrez aurre ez bada. Espero dogu hau guztia pasetan danean fisikoki gure artean egotea. Umeak eskolatik kanpo be pantaila aurrean zenbat ordu emoten dituen ikusita, gurago dogu pantailak albo batera itxi eta personak aurrez aurre izatea. Begietara begiratzeak daukan garrantzia eta eragin positiboa itzela da, eta hori be galtzean gabiz. Guk gure eskolan oingoz, begietara begiratzen jarraituko dogu" dinoe.



GAU BALTZA

Arratia eta Zeberioko eskolak Arimen gauaren gaineko online emondako berbaldia konpartidu eben

Erredakzioa

Zeberioko eskolearen ekimenez, urri bigarrenaren 30ean, Arratia eta Zeberioko eskolak Meet bideokofrentzia plataformara konektatu eta Arimen gaua edo Gau baltzaren inguruko Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia entzun eben batera. Lehenengo aldia da eremuko eskolak holango ekintza bateratu bat egiten dabena.

Juan Manuel Etxebarria, etnolinguista eta euskaltzain urgazle zeberioztarra, askotan egoten da Zeberioko eskolan lehenagoko ohituren inguruan berba egiten eta ipuinak kontetan. "Joan dan ikasturtean Halloween ohitura bihurtzen dagoala-eta kezkatuta, Gau baltza lantzean hasi ginan eskolan, beste eskola askotan legez. Juan Manueleri deitu geuntsan lehenagoko denporetan gau horretako ohituren gainean berba egitera etorteko konbidauz. Pandemia dala-eta ezin izan dogu gugaz izan eta orduan online zuzenean egoteko aukerea mahai

gainean ipini eta aurrera egitea ebatzi genduan. Orduan pentsau genduan geuk bakarrik entzun beharrean, Arratiako beste eskolak konbidatutea eta danok batera Juan Manueleri entzutea" azaldu deusie BEGITURI Zeberioko eskolatik.

Esperientzia barri bateratua

Etxebarriak, Halloween bera nondik datorren eta bitxikeriaren batzuk kontau ebazan, berak idatzitako *Gorbeialdeko ipuin eta esaundak* liburitik hartutako ipuin batzuk kontau aurretik; tartean, *Arimen gaua* izeneko.

Ikasleak honen barri jakitean harritu egin zirala dino eskolako irakasleak. Gure kulturearen transmisioan eragitea funtsezkotzat jotzen dau, baina ez hori bakarrik. "Ekintzatxo honegaz hiru helburu betetea zan asmoa: gure ohituren barri asko dakian persona baten ahotik entzutea; euskera garbia entzutea eta euskeraz gozatea eta entzutea bera. Gaur egun entzutea galtzean dagoalako; entzu-

LABURBIRA

Laburbirako filmak Areatza eta Igorren

**Areatzan zehazkiaren 27an, udaletxeko
Areto Nagusian eta Igorren, zehazkiaren
20an, Lasarte Aretan ikusi ahal izango dira.**



Mamarro filmako protagonistak.

90 10 telefonoan. Izena emon dabenakaz edukiera gaintitzen bada, 26an zozketea egingo da. Izaren filma Diman grabauta dago eta ia lantalde osoa Arratiakoa da. Gabriel Arestiren *Mundu munduan* liburuko *Joku arriskutsuak* ipuinean dago oinarrituta eta Josu Goikoetxearen *Zer luzea negu hau* liburuko *Mamarro* poematik abiatuta.

Janire Etxaberen *Harria Herria* da Dimako beste produkzioa. Etxaberen lana igazko Bilbao Mendi Film Festival-en egon zan eta aurten Mendi Tour-eko zirkuituan dago. Paraje natural baten egindako jantza bertikala eta eskaladea buztartzen ditu.

Topagunea eta Zertu

Laburbira, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau herriz herriko euskaltzaleen alkarreak alkarlanean, Arratian Zertu Kultur Elkarteagaz. Zirkuituak euskerazko ikus-entzunezko produkzioa ezetu arazo eta herrietako kultur eskaintzea aberasteko helburua dauka.

Erredakzioa

Topaguneak antolatutako emonaldiak 19:30ean izango dira eta ordubate inguru irauten dabe.

Filmok, *Harria Herria*, *Mamarro*, *Gau Beltza*, *Urak dakarrena*, *Anti*, *Tigre bat*, *Pil Pil*, *Kateak eta Jauzi bat eta prixt* dira; lehenengo biak Dimako zuzendariak egindakoak. Ibon Iza, *Mamarro* filmaren zuzendaria egongo da Areatzako emonaldian, publikoagazko barriketaldian. Areatzako saiorako edukiera mugatua da eta izena emon behar da zehazkiaren 26ra arte 94 673

EUSKEREA

Euskaraldia ate joka

Erredakzioa

Zehazkiaren 20tik abenduaren 4ra arte, bigarren Euskaraldia, euskeraz "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" egiten ariketa soziala egingo da Euskal Herri osoan. Parte hartzeako izena emoteko, eta ahobizi edo belarriprest txapak eskuratzeko atzen eguna bezperakoa da. Arratian, udalerrri bakotxean egun eta ordu zehatzak egon dira eta egongo dira horretarako.

Herri batzuetan, egunerokotasunean sartu gura dabenez euskeraz egitea, ez dabe ezer berezirik egingo; beste herri batzuetan barriz, hain euskalduna dan aldarrikapena eta jaia buztartu egin gura dabe jentea motibetako. Hori dala-eta, ekintza kulturalak antolatu ditue. Erdibidea topau daben herriak be badagoz, Dima eta Zeanuri, berbarako, eta COVID-19a dala-eta, eta jentea pilatu ez daiten, herriak banderolakaz apaintzea, bideoak egin edota etxetik eta online egin daitekezan ekintzak abiatu ditue jentea euskeraz egiten animetako.

Kultura ekintzak

Areatzan, kultura presentzialaren alde egin dabe Euskaraldian eta lau hitzordu daukiez billaroztarak. Kontzertua, filmak, berbaldia eta herri argazkiak osotuten dabe programazioa. Euskaraldiari hasikerea emoteko, Manez bakarka

kontzertua entzun ahal izango da komentuan, 19:00etan. "Manez" Thierry Biscary-ren izen artistikoa da. Hainbat taldetan (Bolbora, Hegalka, Kokin, Kalakan...) kantau ondoren, Biscary bere kantuetan bere ahaide, auzokide, adiskide edo ezagun batzuen bizi parteak kontetan dauz. Zehazkiaren 27an, Laburbira film laburren emonaldia egongo da Udaletxeko Areto Nagusian 19:30ean. Zortzi film labur egongo dira ikusgai, tartean Arratiako ekoizpen bi. Abenduaren 2an, 19:00etan, umorezko berbaldia udaletxeko areto nagusian, *Bakean dagoena, bakean utzi!* Bertan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai artistak alkarregaz jositako sei bakarrizketa aurkezten ditue. Euskeria eta generoa umorezko gai hartuta, euskalkiak, onomatopeiak, amatasuna, gorpuztasuna eta kristalezko sabaia izango ditue berbabide, besteak beste, ordubate inguruko emonkizunean. Amaitzeko, Euskeraren Nazioarte Egunean, abenduaren 3an, 18:00etan argazki herrikoia egingo dabe plazan.

Bedian be umorezko bakarrizketea programau dabe zehazkiaren 23rako, 18:00etan, frontoian, Lankuren eskutik. Bakarrizketearen helburua ahobizi eta belarriprest rolak eta honeek adierazoten dituen portararak gizareratzea da eta ikusleak euren hizkuntza ohituren gainean gogoetea egin dagiela,

barre batzuk egin bitartean.

Igorren, Euskaraldia hasten dan egunean, hilak 20, egongo da Laburbira film laburren emonaldia Lasarte Aretan 19:30ean.

Lemoan liburu aurkezpen batek eta kontzertu batek emogo deutse hasikerea eta amaierea ariketa sozialari. Euskeria eta kirola buztartuko dabe Euskaraldiari hasikerea emoteko, Alex Txikonon meditatinoak jasoten dituan Unai Ormaetxearen *Mundu bat motxilari* liburuaren aurkezpenean. 19:00etan izango da Jubiladuen Etxeko goiko aretoan. Everestera neguan igotzen, goi mendizalearen gogoetak bizitzaz, mendiaz, zoriontasunaz eta sufrimentuaz, beste askoren artean jasoten ditu liburuak.

Euskaraldia amaitzen dan egunean, abenduak 4, hartutako ohitura barriak eustera animetako, Sergio Mayoral eta Bihotz Gorospegaz batera, Mikel Inunziaga Inunek kontzertua emongo dau, 19:00etan, Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Izen emotek

Izen emote presentzialak eta txapak jasoteko aukerea batez be zehazkiaren lehenengo hamabostaldian izan bada be herri gehienetan, oindino bigarren hamabostaldi honetan be egongo da aukerea hainbat herritan. Holan, Areatzan 17an eta 18an, 17:30etik 19:30era batu ahal dira txapak plazan. Bedian zehazkiaren 17tik 20ra arte, txapak batu eta maskarak egongo dira salgai udal liburutegian.

Diman, 15etik aurrera izen emotea eta txapen banaketeta udal-txetan egingo dabe.

DUNBA

Patioko jolas barriak

Dimako eskolako 6. mailako ikasleak

Gu Dimako eskolako 6. mailakoak gara, ikasturte hau berezia da eta eskolara bueltau garantetik, gela bakotzak txandak eta gune desbardinak izaten ditu: patioan, komunetan, janlekuan... sarrerak eta urtekerak be modu desbardinan egiten doguz, baina primeran egokituta gara!

Koronabirusak ohitura barriak hartzera derrigortu gaitu eta esperientzia desbardinetara moldatzera behartu gaitu, gaur egun sarritan joan beharra izaten dogu komunera eskuak garbitzera, baina hau guztiau ez da guretzako oztipoa izan eskolara pozik eta umoretsu etorteko.

Urri lehenengoan pozik bueltau ginar eskolara: lagunakaz egoteko aukerea daukagu, irakasleai gure gertakizunak kontau ahal deutse-

guz, beste geletako lagunak ikusten doguz, janlekuko jagoleakaz berba egiteko aukerea daukagu... Eta gainera txitean-pitean sorpresatxoak izaten doguz patioan.

Guk gure patio saioak zelangoak diran azaldu gura dogu eta Dunba ataltxo irakurten dozuen irakurleai horren barri emon gura deutsuegu.

Gure eskolako patioa asko aldatuten dago, aldizka eraikuntza desbardinak agertzen dira eta guneka sailkatuta agertzen dira.

Momentuz, agertu diran eraikuntzak honek dira:

Tipi izena jarri deutsagun etxola bat, enbor handi bi, paleakaz egin da dagoan kurutze forma daukan oholta bat, enbor zati txikiak eta HH-koen gunean egurrez egindako suete txiker bat, honek txorrota be badaukana.

Guri gehien gustetan jakun



eraikina tipia da, babeslekua da guretzako, batzuk tipiaren teilatura igoten gara, holan eskalatzailak garala imajinetan dogu, eta besteok etxola barruan gure jolasetara jolasten gara. Egia esan tipian gehiago egotea gustauko litxakigu, baina momentuz daukagunagaz

konformetan gara.

Enbor handietan be primeran pasetan dogu, danok gainean ipinten gara eta gure gorputzak danok alkarregaz enborrak biduten doguz, gure orekak jolasten gara; barreak eta algarak nagusi dira. Enborrak sendoak dira, baina



danok alkarregaz mobidutea lor-tzean dogu.

Paleakaz egindako oholtan saltoak egiten doguz eta batzuk pasarella bat dala imajinetan dogu, holan gure irudimenak hegaz egiten dau.

Honen guztionen gainera, gure hamaiketakoak be aldatu dirala esan behar deutsuegu. Azken urteotan fruta eta krakersak ekarteko ohiturea izan dogu baina baldintza desbardinengaitik aukerea dago beste hainbat gauza ekarteko, hori bai!! beti hamaiketako osasungarria izan behar da. Onuragarria dala gure gorputzarentzat.

Holan beteten doguz gure patio saioak alkarregaz jolasten eta hel-tzean diran jolas barriakaz jolasten.

AGENDEA

**ZEMENDIAK 17
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

AREATZA

17:30etik 19:30era, hilaren 17 eta 18an, Euskaraldiaren txapak batu udaletxeko arkupean.

ARRATIA

Hilaren 30era arte, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketara lanak bialtzeko epea, *begitu@topagunea.com* helbidera.

Norbanakoak Euskaraldian izena emoteko epea zabalik 19ra arte. *www.euskaraldia.eus* helbidean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, Euskaraldiaren txapak batu eta maskaren salmentea liburutegian.

IGORRE

Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo *liburu.igorre@gmail.com* helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

Abenduaren 9ra arte, Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Liburutegian euskerazko liburu bat maileguan hartu, irakurri, fitxa bete eta zozketan parte hartu.

#Igorrenerosi kanpaina opariak amaitu arte.

LEMOA

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

Abendura arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargatu Egunean behin aplikazioa; sartu Lemoako herria taldean. Kakoa: 204F9E. Esteka: <https://eguneanbehin.app/link/1KH1ld9SW5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Lemoan erroldatuta egon behar da.

Hilaren 22ra arte, Lemoako Kirol eta Ariketa Fisikoaren Asteko I. Argazki Lehiaketa. Argazkiak *www.lemoa.net* webgunetik bialdu.

ZEBERIO

Norbanakoak Euskaraldian izena emoteko epea zabalik. *www.euskaraldia.eus* helbidean edo udaletxean.

#Indarkeria Matxistaren Aurka Lehiaketa. Hilaren 20ra arte. Lanak udaletxean entregatu behar dira. Oinarriak *www.zeberio.net* webgunean.

2021eko egutegirako argazkiak aukeratzeko epea zabalik abenduaren 15era arte. Udaletxean bertan edo online Udaleko webgunean.

**ZEMENDIAK 18
LEMOA**

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

16:30etik 17:30era, eguazten guztietan, 3. adinekoentzako jarduera fisikoa doban kiroldegian. Izen emotea 688 661 477 telefonoan.

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen proiektinoak, Patxi Lopezen *Guatemala, volcanes y lagos en el país de los mayas*. Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

**ZEMENDIAK 19
DIMA**

19:00etan, Unai Iturriagaren berbaldia *Euskal komikigintzaren istorio bat* Abaroa Aretoan.

LEMOA

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

ZEMENDIAK 20**AREATZA**

19:00etan, Manez bakarka, Thierry Biscaryren kontzertua komentuan. Izena 94 673 90 10 telefonoan emon

behar da.

ARRATIA

Abenduaren 4ra arte Euskaraldia.

DIMA

17:30ean, Asier Kidamen magia ikuskizuna frontoian.

IGORRE

19:30ean, Laburbira euskerazko film laburren emonaldia Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

19:00etan, Alex Txikon eta Unai Ormaetxeak *Mundu bat motxilan* liburuaren aurkezpena Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

19:30ean, proiektinoia *Iñaki Otxoa de*

Olza dokumentala Gaztelekuan.

**ZEMENDIAK 21
ARTEA**

11:00etatik 14:00etara, merkadua frontoian (egoerak ixten badau).

DIMA

10:00etan, *Autodefensa feminista* ikastaroa 14 eta 18 urte bitarteko neskontzat Emagin taldearen eskutik Elexalden.

IGORRE

18:00etan, Tomaxen abenturak pailazoan *Azken balea* Kultur Etxean. Bazkideak debalde.

**ZEMENDIAK 22
DIMA**

11:00etan, zapata moreen tailerra frontoi txikian. Andraizeak antolatuta. Oinetako zaharrak eroan eta morez pintau.

IGORRE

16:30ean, zinea *Como perros y gatos: la patrulla unida*; 18:45ean, *No mataras* Lasarte Aretoan.

**ZEMENDIAK 23
BEDIA**

18:00etan, *Txor txor* umorezko bakarrizketea frontoian.

**ZEMENDIAK 24
IGORRE**

19:30ean, *Birritan bortxatua* antzezlanak Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 25
ARRATIA**

19:00etan, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean konzentrazioak herrietan, Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian, Diman eta Zeanurin herriko plazetan; Igorren Kultur Etxean eta Lemoan Plaza Gorrian.

DIMA

18:30ean, zapata moreen tailerrean egindakoa errotondan ipini; 19:00etan, andran parketik manifestazioan plazako konzentrazioa joan.

LEMOA

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

16:30etik 17:30era, eguazten guztietan, 3. adinekoentzako jarduera fisikoa doban kiroldegian. Izen emotea 688 661 477 telefonoan.

ZEANURI

Konzentrazioaren ostean, indarkeria matxistaren kontra parkea atondu.

ZEBERIO

18:00etan, Udalak antolatutako #Indarkeria Matxistaren Aurka lehiaketako sari banaketea plazako frontoian.

**ZEMENDIAK 26
IGORRE**

19:00etan, *Mendi biluzia* Alex Txikonen filma Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

18:30ean, indarkeria matxistea aztertzeko eta erantzun kolektiboa eragiteko gakoak Kulturunean. Izen emotea 23ra arte Udalaren webgunean.

**ZEMENDIAK 27
AREATZA**

19:30ean, Laburbira euskerazko film laburren emonaldia. Udaletxeko Areto Nagusian. Ibon Iza *Mamarro* filmaren zuzendaria egongo da. Izena 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.

DIMA

18:30ean, *Panpina* antzezlanak eskolako kamanan.

**ZEANURI**

18:30ean, lehenengo txandea eta 19:30ean, bigarren txandea, *Zaldibar zona cero* Ahoztar Zelaletaren liburuaren aurkezpena Kultur Etxean. Eguzkiolak eta Laratzuek antolatuta.

**ZEMENDIAK 28
IGORRE**

19:00etan, Tartean Teatroren *Ez dok ero* antzezlanak Lasarte Aretoan.

**ZEMENDIAK 29
IGORRE**

16:30ean, zinea *El arco magico*; 18:45ean, *Ane* Lasarte Aretoan.

El txou de Patxi Lemoan

Zementiaren 27an, 19:00etan, Gorka Aguinagalde aktoreak *El txou de Patxi* bakarrizketea egingo dau Lemoako Kiroldegian. Aforo mugatua danez, helduentzako ikuskizun honetan, Udalak lehentasuna emon gura izan deutse 45 urte baino gehiagokoak. Izena hilaren 22ra arte emon daiteke 688 883 686 zenbakian WhatsApeez.

Protagonistea, Patxi, baserritar fanfarroi eta burugogorra da, jatea, edatea eta tabernetan txandak ordaintzea gustetan jakona.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontakutua zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Institutuko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, marrazketa tekniko, teknologia... klaseak eskaintzen dira. Informazio gehiagorako deitu 608 381 984 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat beginu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Dimetalekoak Kultur Elkarteak emondako Dimetaleko boltsa bana.

Saioa Zubiaur (Zeberio)
Espe Kaltzada (Dima)



beginu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.beginu.org | beginu@topagunea.com

seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimmodu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERBITZUA
609421222

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

beginu

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
04 631 52 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 92 00

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheka - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheka
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Guzuz harremanetan gureko 94 631 73 14 edo 649 979 112
Publicidad: 649 979 115
beginu
beginu@topagunea.com www.beginu.org

begitu

18 urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebixean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu abenduan.



*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

bizkaiko kultur
txartela

cecoxi

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK

Deialdia egin dabe. Arratian 18 eta 35 urte bitarteko gazteek jardura ekonomiko barriak sortzeko eta marxan jarteko gastuak diruz laguntzeko.

XEDEAK

Deialdiaren xedea da gazte ekintzaileei Arratiako bailaran jardura ekonomiko barriak sortzen laguntzea.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

18 eta 35 urte bitarteko gazteak.
Entidade eskatzaileak Arratiako udalerriren beten alta emonda egon beharko dau jardura ekonomikoaren ganeke zergan.

BALDINTZAK

Onuraduntzat hartuko dira, deialdi honetako C1 etalean ezarritako betekizunak beteteaz ganera, jardura ekonomiko barraren bat hasi badabe 2019ko irailaren 15etik 2020ko irailaren 14ra bitartean (biak barnean). Jardurearen hasiera eguntzat JEZen lehen aldiz alta emon dauen eguna hartuko da.

ZENBATEKOA, GUZTIRA

7.000 €

BALORETAKO ERISPIDEAK

Lagurtza ekonomikoak deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunen arabera emongo dira, eta erispide honeei jarraituz:

- Barritzailea izatea (10 puntu 100etik)
- Kalidadeko enplegua sortzeko gaitasuna (30 puntu 100etik)
- Eragin soziala (20 puntu 100etik)
- Ingurumen-jasangarritasuna (20 puntu 100etik)
- Ekonomia-jasangarritasuna (20 puntu 100etik)

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

2020ko abenduaren 11.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZINOA

Ikusi oinarriak eta formularioak Arratiako Udalen Mankomunitatearen webgunear: www.arratia.eus

INFORMAZINO GEHIAGO ETA
ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEA
Elexalde, 49
48140 IGORRE (Bizkaia)
gazteria.arratia@bizkaia.org
Tel. 94 631 17 17

ARRATIAKO GAZTEEK ENPRESAK SORTZEKO DIRULAGUNTZAK



Arratia
"Bizar Gurea"



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral